

AFRIKAR BAT GURE ARTEAN

AFRIKAR BAT GURE ARTEAN



M. Zubillaga

Egilea: M. Zubillaga
Azalaren diseinua: M. Zubillaga
ISBN: 9789403741543
© M. Zubillaga
<https://manuzubi.wixsite.com/gabon>
2024

Eskertzak

Nire familiari, abentura honetan baldintzarik gabe parte hartzeagatik eta, batez ere, lapurtu diedan denbora eta energiagatik.

Modu batera edo bestera Blanchardi lagundu dioten guztiei. Zuzenean ezagutu dutenei eta, bera ezagutu gabe ere, nitaz fidatuz, laguntza eskaini dutenei.

Bixeni, liburu honi egindako ekarpen eta zuzenketa baliotsuengatik, eta bereziki liburu osoa irakurtzeko denbora hartu duelako (tira, horixe da esan didana).

Urko eta Edurneri, euskarazko bertsio honetan egin duten lan apartagatik.

LIBURU HONI BURUZ

Manu naiz, dagoeneko adinean sartu xamarra den tipo normal bat, kanean gurutzatuz gero erreparatzen ez diozun horietakoa. Laster ikusiko duzunez, ez naiz idazlea eta, egia esan, ez dut sekula idazle izateko asmorik izan. Baina istorio bat daukat kontatzeko. Blancharden istorioa, 2020ko urrian ezagutu nuen gabondarrarena. Bizitzaren halabehar horiek direla medio, Donostian aurkitu nuen egoera zailean eta laguntza beharrean.

Gure lehen topaketaren ondoren, pixkanaka eta modu naturalean, gure arteko adiskidetasuna eta konplizitate loturak ehunduz joan ziren eta, nolabait, gaur egun ere indarrean jarraitzen dute. Nire familia eta lagunak ezagutu zituen, eta hilabete asko eman zituen gure artean bizitzen. Gure familiako beste bat bezala gozatu eta sufritu du gurekin. Esperientzia aberasgarria izan da, konfiantza, laguntza, arrazakeria, migrazioa, adiskidetasuna edo norberaren bizitzari buruzko dilema moralen aurrean jarri gaituelako.

Blanchard ezagutu ondoren blog bat sortu nuen, eta bertan bere egoerari buruz idazten hasi nintzen tarteka, modu batera edo bestera laguntzen zuten pertsonen informazioa eskaintzeko asmoarekin. Blog horretako testuak dira, neurri batean, kontakizun honetarako egokitu ditudanak. Zenbait kapitulu gehitu ditut, interesgarriak iruditu zitzaizkidanak, Blanchard, istorio honetako benetako protagonista, hobeto ezagutarazteko.


Beti saiatu izan naiz kontu hau guztia diskrezioz eramaten, eta hori, seguru asko pentsatzen ari zarenez, ez dator bat liburu baten antza duen zerbait idaztearekin. Kontua da, denbora igaro ahala, zenbait arrazoiengatik, istorio hau kontatzeko beharra sentitu dudala. Alde batetik, uste dudalako bide honetan lagundu diguten pertsona guztiek urte hauetan gertatutakoa ezagutzea merezi dutela. Bestetik, migrazioaren gaian interesa duen edonork benetako kasu bat aurkituko duelako hemen, zenbait ezaugarritan berezia bada ere, etorkizun hobe baten bila beren lurraldetatik alde egitea erabakitzen duten guztiek dituzten arazoak ezagutzeko aukera emango baitie. Azkenik, idaztea pertsonalki oso baliagarria izan zaidalako sentimenduak eta egoerak ordenatzeko, erabakiak modu analitikoagoan hartzeko aukera eman baitit, nahiz eta ziurrenik ez den beti modu egokienean izan.

Blancharden istorioa ez da orrialde hauetan amaitzen. Agian, aurrerago, urte hauetako bizipen guztiak antolatzen saiatuko naiz, idatzi honen azken kapitulutik aurrera gertatutakoa kontatzeko.

Bukatzeko, esan behar dut gustura ezagutuko nukeela irakurriko duzun honen guztiaren beste bertsio bat, Blanchardena berarena. Egunen batean posible izatea espero dut.

1. Kapituluia

KARRETILA



Karretilari, bai, gure betiko karretilari "eskorga" esaten zaiola dio hiztegiak. Barka nazatela Euskaltzaindiak eta bere jarraitzaile sutsuek, baina nik "karretila" deituko diot. Bekatua izan badaiteke ere, hala erabaki dut kapitulu honi ESKORGA titulua jarri eta aurrez aurre ikusi ondoren.

Hirurehun bat metroko tartea dago gure etxetik koloretako zabor edukiontzietara. Gainezka egoten dira kasu batzuetan eta beste askotan berriz kutxaz, kartoiez, kristalez, lataz eta eraikuntza-materialez inguratuak agertzen dira, seguruenik jabeak ez duelako saskiratzen asmatu. Kontua da, astean behin, karretila etxean sortutako zaborrarekin bete ondoren, kolore anitzeko edukiontzietara jotzen dudala salgaia ahalik eta ondoen banatzeko.

Igandea zen, euri mehea ari zuen eta horren eraginez hotz-sentsazioa termometroak markatzen zuena baino handiagoa zen. Bere pisuagatik une oro bide

zuzenetik urruntzen saiatzen zen karretila zahar hura ahalik eta ondoen gobernatzen saiatzen ari nintzen. Nire pentsamenduetan, neure buruari galdetzen nion nola zitekeen zazpi egunetan gure etxekoak hainbeste hondakin sortzeko gai izatea. Zabor-kamioia imajinatzen nuen eta han utzitako poltsen etorkizun iluna irudikatzen nuen nire buruan.

Pentsamendu lausoak eta apur bat distortsionatuak ziren. Jakina da igandeko otordu oparo baten ondoren, eta digestioaren ondorioz, neuronetara oxigeno gutxi iristen dela eta horrek errealitatea eraldatzen duela. Huraxe zen ba egoera. Bat-batean, ezerezetik bezala, bera agertu zen, galduta dagoenaren keinuarekin eta modu onean hitz egingo dizun norbaiten jarrerarekin.

Gaztea zen, 25 urte ingurukoa. Bere azalaren koloreak afrikar jatorria erakusten zuen, Saharaz hegoaldekoa seguruenik. Ile motza zuen, motxila txiki bat eta arropa zabar xamarra, nahiz eta egun hartan lanerako jantzita neukanarekin erraz asko alderatu zitekeen. Nire itxura zela eta, zaila zen jakitea bietako zeinek zituen arazoak.

Zuzenean, ingurumaririk gabe, laguntza eskatu zidan. Haren begietan eta bere jarreran zerbait berezia ikusi nuen eta horrek, hasiera-hasieratik berarekin hitz egitera bultzatu ninduen. Hilabete batzuk lehenago Gibraltarko itsasarte zeharkatu zuela kontatu zidan, eta Andaluzian denboraldi bat eman ondoren iparralderantz bidaiatzea erabaki zuela, bere hitzetan, “bihotzak gidatuta”.

Une batez pentsatu nuen agian ez zuela ezagutzen GPS sistema. Hala ere, denborarekin ulertu dut nire lagunak intuizioari, bihozkaidei edo Jainkoaren borondateari beti eman dion garrantzia. Eta bide batez, GPSarena ere primeran kontrolatzen duela esan behar dut, nik baino dezente hobeto, portzierto.

Pandemiak eragindako konfinamendua Kordobako Gurutze Gorriaren zentro batean pasa zuen. Bero ederra pasa ondoren, orain Donostian zegoen, hotzak akabatzen eta urriko euripean.

Berarekin hizketan ari nintzela, karretilan neramatzan poltsak banan-banan utzi nituen, bakoitza bere edukiontzian. Baina noski, espero bezala, berehala dirua eskatu zidan, Andaluziara itzultzeko asmoa zuela esanez. Elkarrizketa eskertzen zuela iruditu zitzaidan, batez ere berak ezagutzen zuen hizkuntzetako batean, frantsesean, hitz egiten niolako. EGBn eta BUPn ikasi nuen frantsesa zen, eta, herdoildu xamarra zegoen arren, berarekin modu duin batean komunikatzeko aukera ematen zidan. Bide batez, horiek bai ikasketetarako inisial egokiak, EGB-BUP-COU, eta ez oraingoak, karpeta eta motxila eramateko adina duten alabak izanda ere ez baititut ikasten.

Kontua da zaborra bai, baina sosik ez neramala sakelan. Etxera laguntzeko eskatu nion, diru pixka bat emateko eta, bide batez, karretila zabor gehiagorekin kargatzeko. Etxera itzultzeko egin beharreko 300 metroak astiro egin genituen, lagunkiro solasean. Bere herrialdetik egindako bidaiaren xehetasunak kontatu zizkidan, bere

bizipenak, bere beldurrak, alaitasunen bat eta atsekabe asko, baina bere etorkizunari buruzko ezer gutxi, bere egoeran oraina baitzen etorkizuna.

Egoera bitxia zen; batetik adin jakin bateko tipo bat astebetea sortutako zaborra hustu ondoren karretila trebetasunez maneiatzen eta bestetik ia dena behar zuen gazte bat eta bata besteari kontu-kontari.

Etxera sartu eta nire diru-zorroa arakatu ondoren, topatu nuena eskaini nion, eta, egia esan, ez zen gehiegi. Baina agur esan baino lehen, telefono-zenbakia idatzi nion papertxo batean, behar izanez gero niri deitu ahal izateko.

- **Ton nom?**
- **Blanchard. Et Vous?**
- **Manu.**
- **Au revoir Manu.**
- **Agur, Bon chance.**

2. Kapitula

JAUZIA



"Tangerren bizi izan nintzen bederatzi hilabetez. Nire asmoa Europara iristea zen, nire egoeran zeuden beste hamar pertsonarekin batera. Ez zen erraza izan. Azken bi egunetan basoan ibili ginen kostaldera iritsi arte. Arroken artean, erositako ontzia puztu eta gaua noiz iritsiko zain geratu ginen. Itsasoan sartu eta plastikozko arraunekin egin genuen aurrera. Baina bidean tentsio uneak sortu ziren, korronteak beste norabidera eramaten gintuen eta dena mugitzen hasi zen. Sei lagun uretara erori ziren, itsasoak azkar irentsi zituen eta han geratu ziren betiko. Lau bakarrik iritsi ginen Espainiako kostalderaino."

Blanchard bederatzi hilabetez egon zen Tangerren. Lan txikitan aritzen zen janari eta ostatu truke. Bere egoeran zeuden beste migratzaile batzuekin bizi zen

apartamentu txiki batean, salto egiteko aukeraren zain. Jakin dudanez, Saharaz hegoaldeko herritar batentzat bizitza zaila da Marokoko iparraldeko edozein hiritan, bai poliziaren etengabeko sarekadengatik eta baita bertako biztanleek migratzaileak estigmatizatzen dituztelako ere. Errealitate ezezaguna zen niretzat, eta Saharaz hegoaldekoek Marokon jasotzen zuten tratuari buruzko informazioa jasotzen saiatu nintzen.

Egun haietan Atalayar webgunean irakurri nuen "Arrazakeria beltzez janzen da Marokon" izeneko artikulua batek, gaian murgildu ninduen. Bertan, GADEM talde antirrazista marokohararen iturriak aipatzen ziren, eta hauxe zioten: *"Marokon beltza, pobrea eta paperik gabea izatea okerragoa da kaleko txakurra izatea baino. Marokoko polizia basatia da afrikarrekin. Atxilotu egiten ditu, gaizki tratatzen ditu eta, batzuetan, duten diru apurra ere lapurtzen die. Agintariek, berriz, ez dute beren erantzukizuna onartzen. Hala ere okerrenea da biztanleriaren zati handi bat oso arrazista dela. Marokoar batzuek uste dute musulman izatea besteak baino gehiago izatea dela, eta beltzak gutxietsi egiten dituzte"*.

Eta soziologo batek artikulua berean azaltzen zuenez, *"Marokoko arrazistek Espainiako eta Europako arrazistek bezala jokatzeko dute eta zenbait hiritako auzo pobreetan etorkin marokoharrek gatazkak sortzen direnean erabiltzen den hizkera bera erabiltzen dute hauek ere. Automatikoki, denei leporatzen diete droga-trafikatzaile eta gaizkile izatea"*.

Arrazakeriaren adierazpen gordina dela ikusten dut, desberdinarekiko beldurra, talde batek bestearen aurrean duen nagusitasunaren defentsa. Ohartzen naiz sentimendu horiek, tamalez, gero eta leku handiagoa hartzen ari direla gizartearen sektore jakin batzuetan, nire azken pertzepzioaren arabera behintzat.

Bertatik bertara ezagutzen nuen marokoarrek gure inguru hurbilean jasaten duten diskriminazioa, baina ez nuen inoiz pentsatu Marokon Saharaz hegoaldekoekin bazterkeria-adierazpenak hain gogorrak zirenik. Irakurri nuena prentsa-artikulu bat besterik ez zen, baina bat zetorren nire lagunaren Marokoko egonaldiari buruzko kontakizun beldurgarriekin.

Blanchard preso hartu zuten sarekada haietako batean. Poliziak Aljeriara eraman zuen, eta hantxe utzi zuen, Marokoko mugatik kilometro gutxira, “arazoa” marraren beste aldera lekualdatuz. Autobus-geltoki batean hizketan hasi zen pertsona baten laguntzari esker Tangerrera itzuli ahal izan zela kontatu zidan.

Tangerrera itzuli ondoren, inguruko baso batean ezkutatu zen. Bertan, besteak beste, Kamerun, Mali, Nigeria, Ghana eta Ginea Bissauko ehunka pertsona bizi ziren, Europara iristeko aukeraren zain. Dirudienez, migratzaileek bi kanpaleku mota eraikitzen dituzte basoan; polizia engainatu eta okupatuta mantentzeko egiten direnak batetik eta kanpaleku seguruak bestetik. Azken

hauek iristeko leku zailak dira normalean eta bertan migratzaileen bizi-baldintzak penagarriak omen dira.

Baina Blanchard ez zen lasai bizi basoan. Bere gauzak beti gainean eramaten zituen, edozein unetan gerta zitekeelako polizia-sarekada bat, (eta hau nik diot) Espainiako eta Marokoko ministerioen arteko bileretan erabakitakoaren arabera antolatzen zena. Kontatzen zuenez, batzuetan, polizia hainbat txakur mutur beltzekin agertzen zen, ziurrenik Ingalaterrako landazabaleko azeriaren ehizan ehunka urteko tradizioaren antzera. Eta korrika atera behar!

Esaten zuenez, basoan bizi ziren pertsona askok hilabeteak omen zeramatzen han, baita urteak ere, eta haietako asko behin baino gehiagotan saiatu omen ziren, arrakastarik gabe, Europarako bidea egiten.

Ceutako hesiaren jauzia aukera ona omen da, kontinente zaharrean sartzeko modurik merkeena baita. Baina ez da erraza, batetik, mugaren bi aldeetako polizia-kontrolagatik eta, bestetik, hesiagatik beragatik, 10 metroko altuerako hesi fisiko izugarri bat delako. Duela urte gutxi arte goiko aldean kontzertinak zituen eta gaur egun alderantzizko orraziak ditu. Nolanahi ere, ongietorri beroa ziurtatuta dago.

Europara iristeko beste aukera bat, pertsonen trafikoa aritzen diren mafien zerbitzuak kontratatzea da, baina prezioa ez da edozeinenentzako modukoa (2.500-3.000 €, nire lagunaren hitzetan).

Azken aukera "toys" izeneko txalupa batean sartu eta itsasoa zeharkatzea da. Izen hori erabiltzen dute Saharaz hegoaldeko herritarrek Txinan egindako ontzi puzgarri txikiei buruz hitz egiterakoan. Erraz lortzen dira eta txalupa pneumatikoak baino merkeagoak diren arren, askoz ezegonkorragoak dira.

"Beltz batentzat ontziaren prezioa garestiagoa da, saltzaileak badakielako zertarako erabiliko den eta, beraz, erosleak ordaindu eta isildu beste erremediorik ez duelako" – esaten zidan itsasartetik igarotzeari buruz hitz egiten zidan bakoitzean (eskaintzaren eta eskariaren oinarrizko eredu ekonomikoa era diskretuan, hain zuzen).

Gau ugari eman zituen gure lagunak baso malapartatu hartan barrena, ontziratzeko puntu egokia bilatzen. Espainiako kostaldetik ahalik eta hurbilen egon behar zuen toki horrek, eta ahalik eta polizia-kontrol txikiena izan behar zuen. Informazioa biltzeko egiten zituen sartu-irtenetan, egiaztatu zuen itsasoa nahastuta bazegoen zaintza txikiagoa zela eta, aldi berean, poliziaren itsasontziak eguneko argiarekin batera desagertu egiten zirela. Halako egun batean, leku aproposa aurkitu zuela pentsatu zuen. Kanpamendura itzuli zenean, handik irten behar zuela erabaki zuen, ezin baitzuen jarraitu Marokoko linbo krudel hartan .

Gauzak horrela, txalupa puzgarria erosi zuten beltzentzako prezioan eta itsasoratzeko prestatu ziren. Egun jakin batean, jauzi egiteko unea zela erabaki zuen.

Kanpamentuko lagunekin bildu eta momentua iritsi zela esan zien. Batzuek erokeria zela uste zuten, beste batzuentzako zalantza zen nagusi, eta bakan batzuek baino ez zuten erabakia argi ikusten. Guztira hamar lagun agertu ziren itsasoratzeko prest, eta biharamunean basoan zehar kostalderako bidea hartu zuten, poliziak atzemango zituen edo haiekin zihoazen txakurrek harrapatuko zituzten beldur.

Gure lagunak dagoeneko ezaguna zuen bideari jarraitu zioten. Itsasertzera iritsi zirenean, arroken artean ezkutatu ziren gauaren zain. Itsaso nahasiak eta haize bortitzak behin baino gehiagotan zalantza sorrarazi zien. Baina ez zegoen atzera egiterik. Txalupa puzten joan ziren pixkanaka, nahikoa iruditu zitzaaien presioa lortu zuen arte. Baltsa itsasorantz bultzatu zuten, baina, urarekin kontaktuan jartzeko garaian, irauli egin zen haizearen eraginez. Horrek ziurgabetasuna areagotu zien, eta adur txarreko zeinu gisa hartu zuten.

Ilunabarrean penintsularantz abiatu ziren plastikozko arraunak erabiliz. Ontzian, guztira, 10 pertsona. Bere esanetan, zalantzak berehala hasi ziren, batez ere haizearen indarra handitu zenean eta lehen zurrumbiloekin topo egin zutenean, "Hilero" Gibraltarko itsasertzeko marinelen argotean. "Hileroak" korronte ugariak dira itsasartean eta, bereziki, puntarik aurreratuenen inguruetan. Eta seguru asko, Blanchard haietaz ari zen, tripulatzailleetako bat itsasora erori eta bat-batean, itsasoak irentsita bezala, desagertu zela kontatzen zuenean.

Tentsioa areagotu egin zen tripulazioaren artean, eta badirudi partaide batzuek, hartutako erabakiaz damututa, Marokoko kostaldera itzuli behar zela esaten zutela. Arraunean ari zirenek uko egin zieten eta zuzena uste zuten norabidean jarraitu zuten. Beste bost lagun ere uretara erori ziren bidaiaren uneren batean, eta lehenengoaren zori bera izan zuten. Bizirik zirauten lau gizonak arraunean jarraitzen zuten, jo eta ke, naturaz gaindiko indar batek deabrutu izan balitu bezala eta atzera begiratu gabe. Halako batean, zerumugan, argi batzuk ikusi zituzten. Goizeko seiak aldera eguna argitzen ari zen, eta kostaldea begien aurrean zutela, Gurutze Gorriko ontzi bat ikusi zuten haiengana hurbiltzen.

Behin egun horretako bideo bat erakutsi zidan. Bertan tripulatzaileretako batek, eskerrak eman nahian, niretzat ezezaguna zen abesti bat kantatzen zuen pozarren. Onartzen dut irudi haiek asko hunkitu nindutela, eta aukera eman zidatela imajinatzeko zer sentitzen duen migratzaile batek bere helmugara iristen denean. Baina, era berean, urte hauetan egiaztatu dut jauzia bide zail baten lehen etapa besterik ez dela.

3. Kapitulua

INFERNUA



"Hilabete batzuk Kordobako Gurutze Gorriaren zentro batean konfinatua egon eta gero, handik atera nahi izan nuen. Madrilerako autobus bat hartu eta gaua autobus geltokian igaro ondoren Iruñera iritsi nintzen eta gero Donostiara. Hurrengo goizean, geltokitik irtetean, bihozkada bat izan nuen. Banekien hau zela nire helmuga. Kalean egiten nuen lo, banku batean, baina egun batean afrikar bat aurkitu nuen, eta infernuan ostatu har nezakeela esan zidan".

Edukiontzietan izan genuen lehen elkarrizketa hartatik hiru egunera, dei bat jaso nuen ezagutzen ez nuen zenbaki batetik.

- Hola Manu. Je suis Blanchard. Je ne sais pas si tu te souviens de moi. (Kaixo Manu. Blanchard naiz. Ez dakit nitaz gogoratzen zaren.)

Noski gogoratzen nintzela. Berarekin topo egin eta hurrengo egunetan, behin baino gehiagotan pentsatu nuen bere egoeraz, eta Andaluziarako autobusik hartu ote zuen galdetzen nion neure buruari.

- Bien sûr, je me souviens de toi. Où es-tu?

(Gogoan zaitut, bai. Non zaude?)

- Je suis a l'Infierno. (Infernuan nago.)

Leku honen izenaren jatorria ez da ziur ezagutzen (Donostiako auzoaz ari naiz, ez beste infernuaz) eta, irakurri dudanez, bertsio asko daude. Batzuek diotenez, inguru hura zeharkatzen zuen errepide zaharrak bihurgune arriskutsu bat zuen, eta horrek istripu asko eragiten zituen hortik datorkio izena. Beste batzuek izen hori hiriaren erdigunetik urrun dagoelako dela diote. Testu batzuetan jasotzen denez, leku horretan posta-etxe bat zegoen, ostatu, taberna eta guzti. Bazen baita ere inguru hartan “Belen” izena zuen baserri bat, taberna ere bazuena. Agian izen horri kontrajarriz deitu zitzaion honi “Infernua”. Azken bertsio baten arabera, 1840. urte inguruan hirira sartzen zen errepidea eraikitzean botatako zuhaitzak erre zituen suak sortu zuen goitizena.

Dena dela, izena Ibaeta auzoko hiri-irteerako saihebidetaren ertzean dauden antzinako etxeen eta industria-tailerren ilarari dagokio. Oso eremu degradatua da, eraikin asko daude abandonatuta eta egoera zailean dauden eta bizitzeko leku hoberik ez duten pertsonak erabiltzen dute: Saharaz hegoaldekoek, aljeriarrek eta gehienbat marokotarrek.

Biharamunean elkar ikustekotan gelditu ginen. Berarekin hitz egin ondoren, pentsatu nuen ez zuela ni etxe okupatu hartara hurbiltzerik nahi (gerora erakutsi zizkidan argazkiek bere ezezkoa ulertzen lagundu zidaten). Hitzordu bat adostu genuen Lorea auzoan, bere estatutik 300 metro eskasera.

Arratsaldeko seiak ziren eta edukiontzietako mutil gaztea berriz ikusteko gogoia nuen. 15 bat minutuz zain egon ondoren, arropa berarekin eta sorbaldan motxila berarekin agertu zen. Esan dizuedan bezala, Blanchardek ondo ezagutzen zuen GPS teknologia, hau da, "espazioa" primeran erabiltzen zuen. Baina urte hauetan zehar egiaztatu ahal izan dut arazo gehiago dituela "denbora" magnitudearekin. Noizbait pentsatu izan dut bere orduak ez direla 60 minutukoak.

Hasierako agurraren ondoren, taberna bateko terrazan eseri ginen, garagardo pare batekin. Ordubete baino gehiagoz hitz egin genuen bere egoeraz eta etorkizun hurbilaz, bestea oso urrun geratzen baita kasu hauetan. Bere lehentasuna pasaporte berri bat lortzea zen, berea Marokon geratu baitzen. Ohikoa da jauzia egin aurretik pasaportea bertan uztea edo saltzea: agiririk gabe iritsiz gero, migratzailea ezin delako identifikatu Europan sartzean, eta, beraz, deportazioa zailagoa delako. Erregelari dagoen pasaporte batek migratzailearen jatorrizko herrialdea erakutsiko luke, eta honek kanporatzea erraztuko luke, eta hori, noski, ez da interesatzen hain arriskutsua izan den ibilbide luze baten ondoren.

Pasaporteen legez kanpoko merkatuari buruz ikertu dut geroago. Badirudi mafiek interes handia izaten dutela pasaporteak eskuratzeko. Sarritan lapurtu edo erosten dizkiete nire lagunaren gisara beharrean dauden pertsonei, eta gero salgai jartzen dituzte. Irakurri dudanez, "internet ilunean" eBay atariaren antzekoak daude, eta horietan herrialde askotako pasaporteak saltzen dira, autoentzako ordezeko piezak bailiran. Prezioa handia da, eta aldatu egiten da dokumentuaren azalean ageri den herrialdearen garapen-mailaren arabera. Batzuetan bere horretan saltzen dira, betiere erosleak argazkian agertzen den pertsonaren antza baldin badu. Beste kasu batzuetan, saltzaileak argazkia eta datu pertsonalak aldatzen ditu, dokumentuaren jabe berriari egokitzeko. Dirudienez, txantiloï ereduak ere erabiltzen dira helmugako herrialdearen arabera. Azkenik, batzuetan, pasaportea bide erregularretik eskatzeko aukera ematen duten jaiotza-agiriak faltsutzen dira.

Mugako pasaguneetan, poliziak dokumentuaren ikuskapen bisuala egiten du normalean, eta, beraz, zaila da tranpa antzematea. Baina, batzuetan, kontrola zorrotzagoa da, eta galdutako edo lapurtutako pasaporteak erregistratuta dauden polizia-datu-baseetan egiten da egiaztapen informatikoa.

Ez diot inoiz galdetu nire lagunari berearekin zer egin zuen eta agian nahiago dut ez jakin. Nolanahi ere, pasaportea lehentasuna zen berarentzat, eta hori lortzeko Parisera joan beharra zeukan, Gaboneko enbaxadara.

- **Mais comment tu vas arriver à Paris et en plus en pleine pandémie?** (Baina nola iritsiko zara Parisera eta gainera pandemia betean?)
- **J'ai parlé à un ami et il m'a dit qu'il y a des voitures qui emmènent les étrangers à Paris.** (Lagun batekin hitz egin dut eta esan dit badaudela atzerritarrak Parisera eramaten dituzten autoak.)

Une hartan dena berria zen niretzat. Marokon geratzen den pasaportea, pandemia eta horrek eragiten duen ezohiko egoera, Paris, Afrika, Gabon, kontsulatua, enbaxada, batera eta bestera eramaten zaituzten lagunak... Ez nuen gauza handirik ulertzen, baina laguntza ekonomikoa ematea erabaki nuen, garbi nuelako dokumentazioak berarentzat iltzez eta giltzez itxita zeuden ate asko ireki ahal izango zizkiola.

Nik hala eskatuta, okupatutako etxean zeukan "suite"aren argazkiak erakutsi zizkidan eta izugarriak iruditu zitzaizkidan: leku ilunak, gau hotzetako suteziek belztutako hormak, pintadak eta grafitiak eta koltxoi zahar bat hezetasun zantzuekin (kasurik onenean)...

- **Bonne chance.** (Zorte ona izan.)
- **Je t'appellerai à mon retour.** (Itzultzen naizenean deituko dizut.)


Bere garagardoa erdizka geratu zen. Ez zegoen umoretsu eta kezkatuta zirudien. Motxila gainean zerman

eta arropa asko jantzita, seguru asko, desagertuko
zelakoan, bere bizileku berrian ezer ezin zuelako utzi.

Agur esan genion elkarri, eta etxera kotxez itzultzen
nintzen bitartean, nire lagun berria, une horretan bertan,
infernurantz zihoala pentsatu nuen.

4. Kapitulu

KONFLIANTZA



Kapitulu honen izenburua irakurtzean, batek baino gehiagok pentsatuko du autolaguntzari buruzko liburu amerikarren friki bat naizela. Lasai, ez naiz oraindik aholkuen mundu interesgarri horretan murgildu. Bide batez, autolaguntza aipatzen dudanez, beti pentsatu izan dut laguntza beharrean bazaude beste norbaitengana joko duzula, eta ez zeure buruarengana, hain zuzen ere zeu zarelako laguntza hori behar duena.

Aspaldi honetan irakurtzen dudan gauza bakarra probintziako egunkari ospetsu baten "Sirimiri" atala da. Bertan lehen eskutik jakiten dut txakurrek Alderdi-Ederreko farola batean pixa egin dutela, bandaloek Bergara kaleko markesina batean grafitiak margotu dituztela edo Amarako zuhaixkak tamaina hartu ezinik eta inongo kontrolik gabe hazten ari direla. Azken albiste honek

argazki eztabaida ezina dakar. Argazki-oinaren arabera, erreportariak berak ateratakoa da erretratua.

Horrelako albisteak irakurri ondoren, arazoen kontu hau oso erlatiboa dela pentsatzen hasia naiz, eta aitortu behar dut Blanchardekin izandako esperientziak dezente aldatu duela bizi garen munduaz dudan pertzepzioa eta, bide batez, arazoen benetako dimentsioari buruz teorizatzen ikasi dut.

Baina goazen kapitulu honen izenburura, konfiantzara. Konfiantza pertsona batek beste pertsona batengan edo zerbaitengan duen itxaropen irmoa dela esan daiteke. Los Luthiersek duela urte batzuk esaten zuten bezala: "Azter dezagun esaldia". Norbaitenganako itxaropena irmoa eta sendoa izan dadin, pertsona hori ondo ezagutu behar da, oso zaila baita ezagutzen ez dugun pertsona batengan konfiantza izatea. Eta pertsona bat ondo ezagutzeak berarekin harremanak izatea eta esperientziak partekatzea eskatzen du. Eta konfiantzaren testuinguru horretan, arrazoibideari jarraituz, harremanek denbora behar dute (berriro ere funtsezko magnitudea).

Eta mesfidantza? Mesfidantza, zalantzarik gabe, konfiantzaren kontrakoa izango da (garuna azkar dabilkit gaur). Baina mesfidantza-sentimendua, aurreko paragrafoko logikaren arabera, pertsona horrekiko harremanean eta esperientzietan oinarrituko da. Eta, beraz, denbora ere behar du, konfiantzaz hitz egitean argudiatzen nuen moduan.

Baina, normalean, gauzak ez du horrela funtzionatzen. Berehala helduko diegu mesfidantza indartzen duten argudioei. Albisteetan, estatistiketan eta beste pertsona batzuekin izandako esperientzietan oinarritutako argudioak dira. Egunen batean erle batek ziztatzen bagaitu, beldurrez eta mesfidantzaz erantzungo dugu edozein zomorro hegalaria hurbiltzen zaigun bakoitzean.

Zein sentipen agertu beharko zukeen nire baitan karretila famatuaren egunean, nire laguna parez pare topatu nuenean? Konfiantza? Kapitulu honen hasierako teoriari jarraituz, ez nuen denborarik izan pertsona hori ezagutzeko, eta ez nuen inolako esperientziarik harekin. Beraz, ez zen zentzuzkoa pertsona hartaz fidatzea. Mesfidantza? Ezta ere, kapitulu honi seriotasun kutsu bat emateko asmatu dudana teoriari jarraitzen badiogu. Izan ere, aurretik ez nuen antzeko esperientziarik izan, eta, gainera, bost minutu eskasetan ez nuen Blanchard ezagutzeko astirik izan.

“Konfiantza” gaur egun ere burura askotan datorkidan kontzeptua da, Blancharden istorio honek hitz hauek idazten ditudan unean jarraitu egiten baitu. Uste dut konfiantza beste pertsona baten jokabidean oinarritzen dela, eta pertsona horren ekintzen eta erreakzioen arabera indartu edo ahuldu egin daitekeela, nahiz eta, azken finean, fidatzea gure esku egon.

Inoiz irakurri dut norbaitekin fida zaitezkeen jakiteko modurik onena konfiantza izatea dela. Horixe egin

nuen kasu honetan. Eta ez galdetu zergatik. Edo galdetu nahi baduzu, baina jakin ez dudala erantzun sinesgarririk zuretzako.

Uste dut atal honek ez duela gehiagorako ematen. Hala ere, kapitulu hau irakurri ondoren, agian zuetako batzuk pentsatzen ariko zarete patxarana edaten hasi naizela bazkari eta afari artean. Ziurta dezaket ez dela horrela, baina, egia esan, etorkizun hurbilean ohitura horrekin hastea ez dut baztertzen.

5.Kapitulua

GABON



Pasaporte berria eskuratzeko bidaiak ordu gutxi batzuk iraun zituen. Eta ez Blanchard Hendaia eta Paris lotzen dituen TGVra igo zelako, baizik eta kontratatu zuen bidaia, eta ez diru gutxiren truke, Frantziako jendarmee, lan bikain baten ondoren, muga eten zutelako. Harrapatu eta paperik ez zuela egiaztatu ondoren, Espainiako poliziaren esku utzi zuten. Hauek, argazkiak egin eta gaua gelatxo batean igaro ondoren, aske utzi zuten, egun argiz. Arrakasta itzela. Kotsulaturik gabe, pasaporterik gabe, dirurik gabe eta polizia nazionalaren komisarian egin zizkioten argazkien kopiarik gabe itzuli zen Donostiara. Antzararen jokoan bezala, irteerako laukira itzuli zen berriro.

Egun horietan irakurri nuen komunikabideren batean “Infernu”an bizi ziren migratzaileak etxe okupatutik ateratzera zihoazela. Blanchardi deitu nion bere egoera zein zen jakiteko. Esan zidanez, bertan bizi zirenen artean aipatzen zen hurrengo egunean poliziak eraikina uzteko "gonbidapena" egingo ziela. Handik ateratzeko argudioak ziren, egunkarien arabera, alde batetik, eraikina eraitsi behar zutela inguruko urbanizazio-plana aurrera eramateko, eta, bestetik, arazoak saihestu nahi zituztela, izan ere 2019ko martxoan pertsona bat hil baitzen eraikin horietako batean izan zen sutearen ondorioz.

- **Et que vas-tu faire?** (Eta zer egingo duzu?)
- **Je ne sais pas. Certains vont aller ailleurs et j'irai avec eux. Je ne veux pas que la police m'attrape à nouveau.** (Ez dakit. Batzuk beste nonbaitera joango dira eta ni beraiekin joango naiz. Ez dut nahi poliziak berriro harrapatzea.)

Hurrengo egunean, Tolosa Etorbidetik lanera nindoan, “Infernu”ko etxeetatik oso gertu, eta nire lagunaren iragarpena zuzena zela ikusi nuen. Poliziaren auto batzuen argi urdinek “Infernu”an zerbait gertatzen ari zela iragartzen zuten. Zenbait migratzaile ikusi nituen agenteekin hitz egiten maletak eskutan, beste batzuk eraikinetik alde egiten zuten bitartean. Hogeitabat gazte manifestazioa egiten ari zen inguruetan *"Infernua bizirik! Inor ez da ilegala"* zioen pankarta bat zeramatela. Azaroa zen, eta eraikin goibel hartako bizilagunak kale gorrian gelditu ziren, euripean eta hotzetan, eta gainera pandemia betean, gaua estalpean igarotzeko inolako aukerarik gabe.

Nire bideari jarraitu nion, nire gogoetetan eta goizeko ohiko auto-ilaran murgilduta, han gertatzen ari zenarekin zerikusirik ez zuten gidariz inguratuta.

Handik bi egunera Blancharden dei bat jaso nuen. Loiolako pentsio batean ostatu hartzea pentsatzen ari zela azaldu zidan, baina ez zeukala horretarako dirurik. Gehiegi pentsatu gabe, berriz ere bere egoera aztertzeko eta ahal zen neurrian laguntzeko konpromisoa hartu nuen. Niretzat arazoak hasiak zirela susmatu nuen, batez ere ekonomikoak, baina kezkak alde batera uzten eta aurrera egiten saiatzeko prest nintzen, nahiz eta hartutako bide hura non bukatzen zen ez jakin. Alde batetik, oso egoera zailean zegoen pertsona bat laguntzen nuela pentsatzeak lasaitu egiten ninduen, baina konturatu nintzen ez zela gure kaleetan egunero ikusten nituen beste pertsona askorena baino okerragoa. Alde bakarra zen kasu zehatz honetan pertsona hori ezagutzen nuela, eta ziur aski dagoeneko konfiantza nuela berarengan.

Hurrengo egunean hitz egitekotan geratu ginen eta ostatu hartu zuen lekutik hurbil zegoen parke batean paseo bat eman genuen. Elkarriketa gustatzen zitzaiola egiaztatu nuen. Segur aski azken hilabete hauetan guztietan ez zuen behar besteko lasaitasunik izan solasean aritzeko. Bere herrialdeaz, "Infernua" uzteaz, Europarako bidaiaz, pandemiaz eta beste hainbat kontuez hitz egin genuen oinez astiro genbiltzan bitartean.

Ilundu zuenean, ibiltari bat gurutzatu zen gure bidean eta "Gabon" esan zigun. Blanchardek harrituta

begiratu ninduen eta seguruenik bere buruari galdetzen zion ea ondo entzun zuen: GABON esan al du? Nola daki tipo honek zein herrialdetatik natorren? Azken hau euskaraz irakurri baduzu ere frantsesez pentsatzen zuen seguruenik.

"Gabon" hitzak euskaraz duen esanahia irribarretsu azaldu nion eta gure hizkuntzaz, gure izaeraz eta gure beste zenbait ezaugarritz hitz egiteko aprobetxatu nuen. Bide batez, burutazio bat besterik ez da baina...agian euskaldunak izan ginen Afrikako eremu ezkutu hari izena eman genion kolonizatzaileak. Hipotesi bat besterik ez da.

Izozkiak gure hirian duen garrantzia azaldu nion, batez ere abuztuan ospatzen diren jaietan. Festa hauetarako hitz batzuk ikasi beharko zituela esan nion, su artifizialetan komentario zorrotzak egin ahal izateko: japoniarra, kometak, palmondoak edo krosetteak, besteak beste. Irakatsi nion bertako egunkaririk ezagunena irakurtzen zuenean eskelei erreparatu behar ziela gure artean guztiz integratzeko, orrialderik irakurrienak baitziren. Ondo pentsatuta ere, seguruenik ez du han agertzen den inor ezagutuko. Hala espero dut behintzat. Hobe horrela.

Ez dut Afrika ezagutzen eta gau hartan bertan nire ezjakintasuna neurri batean arintzeko asmoz, herrialde afrikar horri buruz interneten ikertzea erabaki nuen. Gabon Nafarroa baino hogeita sei aldiz handiagoa den nazio bat da, baina bere biztanleria ia bera da. Libreville da bere hiriburua eta frantsesez hitz egiten da gehienbat. Tira,

guk jarri genion izena herrialdeari, baina harrigarria bada ere, frantsesa nahiago dute hizkuntza gisa. Tokiko 50 hizkuntza inguru daude, eta gehien hitz egiten direnak fang, mbere eta sira dira, bakoitzak hiztunen % 25-30ekin. Ez da herrialde pobrea, bere errenta per capita Saharaz hegoaldeko Afrikako nazio askoren errentaren laukoitza baita (wikipedia dixit).

Nolanahi ere, Gabon urrun dago zentzu guztietan: maila ekonomikoan, bizi-itxaropenean, jatorrian, tradizioetan (adibidez, beraiek ez dute alardarik, eta sinesgaitza bada ere, jaietan ez dute danborrada jotzen), eta seguruenik munduaz beraiek duten ikuspegia eta gurea oso desberdinak izango dira.

Hala ere, ongi pentsatuta, elkarrengandik hain urrun ez gaudela iruditzen zait; azken egunetako esperientziak behin eta berriz erakusten zidan uste baino antzekoagoak garela. Erreinu, klase, ordena, familia, tribu, genero eta espezie bereko pertsonak gara. Eta kezka eta irrika berberekin bizi gara, emozio eta sentimendu berberekin, bertute eta ahulezia berberekin.

Baina utz dezagun poesia alde batera. Nik bezala Interneten denbora galtzen duzuenok dakizuenez, bilaketa batek beste batera garamatza eta esteka batek beste batera, eta horrela, konturatu gabe, Gabonera autoz iristeko egin beharko genituzkeen kilometroak kalkulatzeko ikusi nuen neure burua. Aitortu behar dut sareen-sarea existitzen denetik hau baino bilaketa zentzugabeagoak egin ditudala. Bada, 6954 kilometro dira (apur bat gutxiago ospitaletako

saihesbidea hartuz gero), 105 ordu, beraz, 4 egun eta 6 ordu, gutxi gorabehera. Tira, zubi luze baterako pentsatzeko moduko plana.

6.Kapitulua

OPARI-TXARTELA



Gauza bitxi bat gertatu zen egun hartan. Ostiral bateko goizeko bederatzietan nire lagunaren mezu bat jaso nuen. Kontatu zidanez, bezperan galtzak hautsi zitzaizkion, gaur egungo praka guztiak apurtzen diren bezain erraz. Azaldu zidanez, haustura izterondoan zen eta aire hotza sartzen omen zitzaion inguru delikatu xamarrean.

Izan ere, gaur egungo galtzak ez dira garai batekoak bezalakoak. Zerorrek egiazta dezakezu hori. Nahikoa da, hiruzpalau aldiz garbitu dituzun 20 euroko bakero batzuk janzea. Jarraian, bota txanpon bat lurrera eta makurtu jasotzeko. Praka horiek, ia ziur, urratu egingo dira hasieran deskribatzen nizun eremu konprometitu horretan, txanponean aurpegia edo gurutzea ateratzen den kontuan hartu gabe. Gurutzea ateratzeko probabilitatea % 50ekoa dela jakinda, galtzak hausteko aukera % 100ekoa dela ikusiko duzu.

Arropa ezin da lehengoa bezalakoa izan. Kontsumo-eredua asko eta merke erostea da. Jantzia apurtzen denean,

nazkatu egiten gara, edo, lehen aldiz erabili aurretik ere, edukiontzi batean uzten dugu, bigarren bizitza bat izango duelakoan, eta benetan behar duen norbaitek aprobetxatuko duela pentsatzen dugu. Sinesmen honek gure kontzientzia karitatearen uretan garbitzeko aukera ematen digu, berriro ere gustukoa dugun dendara jo aurretik, noski. Baina, errealitatea oso bestelakoa da, arropa horrek mendiak sortzen ditu munduaren hego aldeko herrialde askotako zaborrontzi erraldoietan.

Argitu behar dut hainbat arrazoiengatik (bateren bat aipatu dut) arropa erostera joatea ez dagoela nire kirol gogokoenen artean. Beti iruditu zait esker txarrekoa eta estresagarria den jarduera. Sufritu egiten dut denda batean sartu orduko dendaria laguntzeko prest gerturatzen zaidanean. Deseroso sentitzen naiz batere gustatzen ez zaidan arropa hori probatzeko esaten didatenean, "ikusiko duzu zein ondo gelditzen den jarrita" lelopean. Larritu egiten naiz, zer erosiko dudan erabaki ondoren norbaitek zera esaten duenean: "beste hori askoz politagoa da eta hobeto geldituko zaizu". Esandakoa, ez nau liluratzen erosketen munduak, Bardean erdian bisigu bat banintz bezala sentitzen naizelako.

Bueltatu gaitezen harira. Mezua irakurri eta une batez merkealdi garaian nire laguna arropa-denda batera lagundu behar nuela irudikatu nuen. Azkar asko, erabat baztertu nuen ideia hura izerdi hotzen artean. Konponbidea? Teknologia.

Web - Opari-txartela - Opari-txartela elektronikoa - Aukeratu kopurua - Gehitu - Partekatu - Hartzailea - Onartu erosketa-baldintzak - Ez dituzu onartu erosketa-baldintzak - Ereditu zintuen ama - Erosketa -Orga - Ordaindu - PayPal - Pasahitza - Gakoa ez da zuzena - Orain pixka bat zuzenagoa da baina oraindik ez da zuzena - Oraingo honetan bai - Eskerrik asko zure erosketagatik - Hemen duzu esteka - Partekatu esteka hau - Eskerrik asko berriro erosketagatik - Baietz, joder - Egin hemen zure erosketaren jarraipena.

Eta kito. Erraza. Ordenagailuarekin 55 bat minutuz borrokan aritu ondoren dena prest nuen. Azkenean, zorioneko esteka bidali nion lagunari, eta azaldu nion ez nuela zertan berarekin joan behar, nahikoa zela opari-txartelean agertzen zen kodea erakustea bere galtza berriak dendan eskuratzeko. “Harri batez bi kolpe” pentsatu nuen: berak bere galtza berriak lortuko zituen, eta nik ez nuen zertan merkataritza-guneen mundu desatsegin horretan murgildu beharrik.

Biharamunean, Blanchard dendara joan zen bere opari-txartelarekin, telefonoan nik bidalitako esteka ondo gordeta zuela.

- Aquí pantalón, esto tarjeta de regalo de amigo (Hemen galtza, hau erosketa-orga)-horrelako zerbait esango zion saltzaile jatorrari. Ondoren, imajinatzen dut frantsesez azalduko zuela opari-txartelaren kontua, eta ziur aski saltzaileak ederki ulertuko zion, denda horretan gehiago

ikusten baitira mugaz bestaldekoak bertakoak baino. Hala ere, inora iristen ez zen elkarriketa baten ondoren, esan zioten ezin zituela praktikak eraman nik bidalitako opari txartel horrekin, ondo ulertu ez nituen arrazoiengatik.

- En el centro hay otra tienda de la misma cadena. Prueba allí (Hiriaren erdialdean kate bereko beste denda bat dago. Probatu han) - erantzun nion mezu batean gertatutakoa irakurri ondoren. Eta horixe egin zuen arratsalde hartan bertan. Beste saltzaile jator bati erakutsi zizkion opari-txartela eta mezu bidez bidali nion ordainagiria. Ezta ere. Neskak zioen opari-txartel hori frantsesa zela, gaztelera ezin hobearen idatzita egon arren. Dendako logotipoan erreparatu arazi zion txartela seinalatuz, ofiziala ez zela argudiatuz. Edo horrelako zerbait. Azkeneko hau ere ez nuen ondo ulertu.

- No tengo pantalón, mujer de la tienda no quiere. Yo iré contigo más tarde. (Ez dut praktarik, dendako emakumeak ez du nahi. Ni geroago joango naiz zurekin.) Eta lasai asko geratu zen, nire gorputza azaltzeko zaila den hotzikara batek zeharkatzen zuen bitartean.

Egoera hark konponbide azkarra behar zuen. Balorez armaturik eta teknologia alde batera utzita bi erabaki hartu nituen. Alde batetik, berarekin geratu nintzen dirua eskura emateko, bera izan zedin, bera bakarrik, ditxosozko galtzen bila joango zena, eta, bestetik,

esperimentu txiki bat egitea erabaki nuen: familiako pertsona bat, erosketetan ni baino trebeagoa dena, denda berera joango zen, opari txartel berarekin, eta zerbait erosten saiatuko zen.

Nire lagunak ez zuen arazorik izan dirua erakutsi ondoren prakak etxera eramateko. Bide batez, galtzak urratuta zeuden, eta halaxe jakinarazi nion jantzi bezain laster. Azaldu zidanez "ripped jeans" omen ziren, baina bere azalpenek ez zuten lortu nik galtza zulatuak ez ziren beste ezer ikustea.

Esperimentuari dagokionez, dendara joateko eskatu nion pertsonak opari-txartela erakutsi zion saltzaileari, eta ez zuen arazorik izan beste jantzi bat erosteko. Ikusten duzuenetz, "ripped jeans"-ak garesti atera zitzaizkidan opari-txartelaz gain dirua ere jarri bainuen.

Esperientzia horren ondoren, galdera bat baino gehiago sortu zitzaidan: agian nire lagunak ez zuen zuzen azaldu zer nahi zuen? Agian saltzaileek ez zuten ondo ulertu nire lagunak azaldu nahi ziena? Agian ez zuten ulertu nahi izan? Agian dendaria lanez gainezka zegoen eta ez zuen astirik nire lagunari kasu egiteko? Edo agian agian... Bakoitzak bere ondorioak atera ditzala. Nik baditut nireak.

7.Kapitulua

FAMILIA ETA LAGUNAK



Imajinatzen dut bikotekidea engainatzen duen pertsona batek nik egun haietan sentitzen nuenaren antzeko sentsazioa izan behar duela. Badaezpada ere errepikatu egingo dut: imajinatzen dut. Izan ere, mugimendu arraroak egiten hasi nintzen gertukoaren begien aurrean: etxean ezorduetan sarrerak eta irteerak, "beranduago iritsiko naiz" bezalako esaldiak, jendaurrean erantzun gabeko telefono-deiak eta beste egoera konprometituren bat.

Zenbaitetan Blanchardekin elkartzen nintzen bere egoera berria kudeatzen laguntzeko: dokumentazioa, informazioa eta oinarrizko beharrak, besteak beste. Askotan bizikletaz joaten nintzen bere ostatura janaria eramatera eta ostatuaren kanpoaldean aritzen ginen solasean.

Hasieratik egin zitzaidan deigarria Blanchardek gaurkotasuneko gaiei buruz zuen ezagutza. Politika eta ekonomia interesatzen zaizkion pertsona da, eta ondo ezagutzen ditu munduko gatazkak, bereziki afrikarrak. Munduko ordenari, munduko potentzia handiei edo herrialde txiroei buruzko bere teoriak sutsuki defendatzen ditu zertxobait zirikatzen baduzu. Eta gaizki dago nik esatea, baina horretan nahiko ona naizela esan behar dizuet.

Asko gustatzen zitzaidan bere herrialdeari buruzko bizipenak partekatzen zituenean; han zeuzkaten baso handiak, herrixketako edo hiriburuko bizitza, eta bereziki animalia basatiak: bidean gurutzatzen den elefantea, bazkaltzeko antilopeak, atetik sartzen ez diren armiarmak (batzuetan ahobero xamarra dela esango nuke), tximino ululariak eta Gabongo basoetan bizi zen animalia eta zomorro mota bukaezina.

Etxean egoera berri hura planteatzeko momentua iritsi zela erabaki nuen. Familiako kide guztiekin hitz egin nuen eta irakurri berri duzun guztia azaltzen saiatu nintzen, noski, txiste txarrak eta xehetasun batzuk alde batera utzita. Hasierako ziurgabetasunaren eta egoerak planteatzen zituen zalantza logikoen ondoren, Blanchard etxera ekartzeko eta familiartekoak ezagutzeko unea iritsi zen.

Pandemiak eta harreman sozialaren murrizketek atzeratu egin zuten topaketa, baina egun batean, Gabonak baino lehen zela gogoratzen dut, gure etxera etorri zen eta

bertan bizi ginen guztiak ezagutu zituen. Topaketa bitxi eta berritzailea izan zen guztiontzat, helduentzat zein gazteenentzat. Une hartan ezagutzen zuen gaztelera apurra erabiltzen zuen edo zuzenean frantsesa eta neuk egiten nituen itzultzaile lanak. Aitortu behar dut Blanchardek, bere alaitasun eta naturaltasunarekin, hasiera-hasieratik, guztien estimua irabazi zuela (GPSaz gain, bikain menderatzen duen beste atal bat dela egiaztatu nuen).

Igarotako denborak eskaintzen duen ikuspegiarekin prozesua aztertuta, esan behar dut Blanchardek familia bat izan duela gure etxean. Pentsa dezaket agian gaur egun bere familia bakarra garela.

- **Blanchard...**
- **Oui?**
- **Si ça continue comme ça, je serai celui qui va émigrer.** (Horrela jarraituz gero, ni izango naiz emigratu beharko duena).

Blanchardek barre egiten zuen, lotsaz. Txantxak gustatzen zaizkio. Euskaldunen umore zakarra eta sarkastikoa ezagutzen ari zen pixkanaka. Jakina, ez nirekin.

- **Manu, je suis convaincu que les choses changeront avec l'aide de Dieu.** (Manu, ziur nago gauzak aldatu egingo direla Jainkoaren laguntzarekin.)
- **Dieu? Il n'a pas montré de signes encore...En ce moment c'est moi qui fais le**

boulot. (Jainkoa? Oraindik ez da inon azaldu. Ni naiz lana egiten ari dena.)

- **Oui c'est vrai.** (Bai, hala da.)
- **Bien que...peut-être qu'il m'a envoyé pour t'aider...** (Baina agian zuri laguntzeko bidali nau...) – esan nion ironiaz.
- **Oui, peut être...** (Bai, izan daiteke...)
- **Je pensais qu'à partir de maintenant tu devrais m'appeler Arcangel San Manuel, qu'est-ce que tu penses?** (Agian hemendik aurrera San Manuel goiaingerua deitu nazakezu, zer iruditzen zaizu?)

Azken esaldi honek irribarre bat marraztu zuen bere aurpegian, eta horrek bazuen bere meritua une hartan. Blanchard kristau kulturen eta fedean hezitako pertsona da eta, beraz, Jainkoari buruz egiten zituen aipamenak ohikoak ziren. Bestalde, eta aurrekoarekin lotuta, gauza batek sarritan eman izan dit atentzioa; batetik, ezbeharren aurrean duen konformismoa eta, bestetik, patuari buruzko etengabeko erreferentziak. "Pero está así, qué vas a hacer" (Horrelaxe da, zer egingo duzu ba?) maiz errepikatzen zuen esaldia zen. Bide batez, bere gaztelania hasiberrian ez zituen bereizten "ser" aditza eta "estar" aditza, eta horrek nortasun berezia ematen zion erdaraz hitz egiteko bere moduari.

Lehen oztopoa salbatuta, batere gogoko ez nuen beste arazo bat eta familiarekin zuzenean lotuta zegoena azaleratu zen, hau da, dirua. Blanchardek pentsio batean

hartzen zuen ostatu eta erregularitasunez janaria eramaten nion, arropa behar zuen, eta ez zuen inolako diru-sarrerarik. Hori guztia zama ekonomiko garrantzitsua zen gastatzeko adinean zeuden alabak zituen familia batentzat eta lehen munduko jendeak sortu dituen behar horietako asko zituen giza talde batentzat, gure familiarentzat, alegia. Beharrezkoa zen denboran luza zitekeen egoera honi bide bat aurkitzea eta nire lagunekin akordatu nintzen.

Blog bat sortu nuen ingurukoei egoeraren berri emateko asmoz. Testu horiek dira, neurri handi batean, irakurtzen ari zaren guztiaren oinarria. Nire lagun berria aurkeztu nuen eta hura erregularizatzeko ematen ari ginen pausoen berri eman nien. Atarikoen eta beharrezko azalpenen ondoren, laguntza eskatzeko unea iritsi zen.

Nire haurtzaroan monagillo izan nintzen herriko parrokian. Eta, igandero bezala, mezaren une jakin batean poltsa bat pasatu behar izaten genuen bertaratuen artean dirua biltzeko, ez dakit zehazki zertarako. Normalean, besoa luzatzen genuen eta eliztarrek feltro urdin eta gorriz egindako poltsa itsusi batean sartzen zuten dirua. Baina, behin, susto handia hartu nuen ilarako lehen pertsonak poltsa kendu zidanean eta hurrengoari pasa zionean eta honek hurrengoari eta honek besteari... Eskerrak zaku hura kontrako norabidean, nire eskuetaraino heldu zen, nigandik urruntzeko erabili zuen bide beretik. Atabaka pasatzeko ohitura aldatu egin zen eta ni ez nintzen ordura arte jabetu.

Behin, meza nagusia hasi aurretik, jantzita neukan sotana begiratu nuen eta duela urte batzuk orkatiletara iristen zen jantzi harren amaiera ez zegoela nire belaunetik oso urrun erreparatu nuen. Igande hartan bertan sotana zintzilikatzea erabaki nuen, nahiz eta ez dakidan ziur monagillo modura dimisioa aurkezten duzunean sotana zintzilikatzen ote den.

Anekdotak txiki hau erabili nuen nire ingurukoei egoera berri hartan laguntza eskatzeko asmoarekin. Azaldu nien Blanchard Donostian erroldatzeko paperak biltzen ari zela, ordaindu beharreko pentsio batean zegoela (pentsio askotan gertatzen den bezala), ez zuela inor ezagutzen hirian eta ez zuela dirurik janaria edo arropa erosteko. Eta era guztietako laguntza eskatzen nien: janaria, arropa, dirua, lana, animoak edo elkarrizketa besterik ez. Eta bukatzen nuen esanez monagillo papera berreskuratu nuela, nire ustetan justiziazkoa zen eta denentzat aberasgarria izan zitekeen arrazoi batengatik. Kanpaina animatzeko abesti txiki bat ere egin nuen.

Ez nengoen dirua eskatzen ohituta, eta aitortu beharra daukat oso gogorra egin zitzaidala. Adorea hartu eta aurrera egin nuen, Blanchard laguntzeko egokia zela pentsatu nuelako, eta gure familian finantza-arazoak saihesteko modua ere izan zitekeelako. Umorea eta Testamentu Berria erabili nituen estutasunetik ateratzeko. Ondoren, nire lagunei blogean azaltzen niena berriro datziko dut:

- *Zure ekarpenak BORONDATEZKOAK izango dira. Esan nahi dudana da ez duzula zertan lagundu beharrik. Ez dut uste immigrazioaren arazoa blog honen bidez ezagutu duzunik. Agian, nik orain arte egin ez dudana bezala, gobernuz kanpoko erakunde bati laguntzen diozu, edo agian ez zaizu interesatzen planteatzen dudana ezer. Beraz, gustatuko litzaidake bakoitzak nahi duena egitea, inolako presiorik sentitu gabe.*

- *Zure ekarpenak ANONIMOAK izango dira. Beste aukera bat ere baloratu dut: marmolezko plaka bat enkargatzea, eta bertan parte hartzen duzuen guztien izena eta bi abizenak zizelkatzea. Baina baztertu egin dut ideia, marmoldegira deitu eta zuen izenak eta bi abizenak erliebean jartzeak duen prezioa jakin ondoren. Ikaragarria da zein garesti dagoen marmola! Gainera, laguntza anonimoa izatea ez da nire burutazioa. Duela urte batzuk, San Mateok berak argi izan zuen hala izan behar zuela (Mateo 6: 1-4): "Limosna ematen duzunean, ez jo tronpetarik zure aurrean, hipokritek sinagogetan eta kaleetan egiten duten bezala, gainerakoek goraipatu ditzaten. Limosna ematen duzunean, ez dezala jakin zure ezkerrekoak {eskuak} zer egiten duen zure eskuinekoak". Bide batez, apostoluari erreparatzen badiozue tronpeta-jotzaile guztiei abisu argia bidaltzen die, ez jotzeko, alegia. Eta anonimotasunarekin jarraituz, idatzi honen egileak berak ere izengoiti deszifra ezina erabiltzen du*

bukaeran egiaztatuko duzuenez, zein den jakin ez dezazuen.

- *Ziurtatzen dizuet LAGUNTZA ahalik eta ondoen administratuko dudala. Eta nirekin fidatzen ez bazarete, beti irakurri ahal izango duzue blog honetan KONFIANTZA izeneko kapitulua. Agian lasaiago egingo duzue lo. Edo agian ez.*

Fray Manuel

Eta webgunean hauxe idatzi ondoren, baldintzarik gabeko lankidetzara iritsi zen. Eta indarberrituta eta harro sentitu nintzen, ez hainbeste lortutako laguntzagatik, baizik eta nire inguruan pertsona bikainak nituela egiaztatzeagatik.

8. Kapitula

ZOAZ ZU NIRI BARREGURA SARTZEN ZAIT ETA



- **Et toi, que penses-tu du vaccin?** (Eta zuk zein iritzi duzu txertoari buruz?) – galdetu zidan halako batean.

- **Je pense que cela peut être une solution à ce problème. Désormais, toute personne infectée aura moins de symptômes et moins de risques de tomber gravement malade** (Arazoaren konponbidea izan daitekeela uste dut. Hemendik aurrera, kutsatzen den eta txertatuta dagoen pertsonak sintoma arinagoak izango ditu eta larri gaixotzeko aukera gutxiago) - erantzun nion konbentzituta.

Bide batez, aitorpen txiki bat egin behar dizuet. Nire lagunari mezuak frantsesez idaztean, bi “O” dituen enpresaren itzultzailea erabiltzen dut; ez pentsa haurtzaroa Pariseko Montmartre auzoan eman nuenik.

2021eko otsaila zen. Espainian ordurako 3.133.122 kasu baieztatu eta 67.101 hildako zenbatu ziren. Euskadin laugarren olatuaz hitz egiten zen, 2020ko Gabonetako oporren ondoren izandako kasuen gorakadagatik. Garai horretan hasi ziren iristen SARS Cov-2aren aurkako txertoaren lehen dosiak. Egun haietako albisteek Begoña, Consuelo eta Bernardina gorai patzen zituzten. Hiruen artean 259 urte batzen zituzten eta Pfizer/Biontech txertoaren lehen dosia jasotzen lehenak izan ziren.

Gure lagunak susmo txarra hartzen zien txertoei, baita pandemiaren jatorriari ere. Gustura entzuten nituen kutsu konspiranoikoz betetako bere teoriak eta, gainera, seguruenik nire erreakzioak aztertzeke puzten zituenak. Zenbaitetan zalantzan jartzen zuen birusaren existentzia bera, eta beste batzuetan, berriz, farmazialariei egozten zien mundu mailako psikosia sortzearen errua, ondoren berebiziko etekinak lortzeko.

Txertoari buruzko lehen galdera egin ondoren, jarri zuen ume gaiztoaren aurpegiari erreparatu nion, eta beste galdera bat zetorrela jakin nuen:

- Et toi, est-ce que tu vas te faire vacciner?
(Eta zuk txertoa jarriko al duzu?)

-Bien sûr, je pense que c'est la meilleure option, penser à moi et penser à la communauté (Noski baietz, aukerarik onena dela uste dut, nigan eta komunitatean pentsatzen dut.) – erantzun nion zorrotz.

Egun haietan, Blanchardek egiten zizkidan galdera horiek behin eta berriz entzuten ziren kalean. Jende askok zalantzan jartzen zuen txertoaren eraginkortasuna, eta beldur zen ez ote zen segurua izango eta albo-ondorioak eragingo ote zituen. Sarritan txertoei mota guztietako eragin kaltegarriak egozten zizkieten. Mezu eta bideoak zebiltzan han-hemenka, txertoak Bibliako zazpi izurriteak bailiran (edo hamar ziren?). Eta nire lagunak interes handia zuen pandemiaren nondik norakoak ezagutzeko, baina ziberespazioa betetzen zuten azalpen trumoisuek erakartzen zuten.

Bere galderaren ondoren, txertoa hartzen zuen pertsona bati (hau da, niri) gertatzen zitzaionaren zuzeneko behatzaile izateko desioa sumatu nion. Nire aurpegiaren kolorean gerta zitezkeen aldaketei, belarriek izan zezaketen tamaina aldaketari edo sudurretik irten zitezkeen keari erreparatzeko erabat adi egoteko prest ikusten nuen. Eta aste batzuk igaro ondoren horrelakorik gertatzen ez bazen orduan, eta orduan bakarrik, ikusten nuen txertoa hartzeko prest.

RNA mezularian oinarritutako txertoez hitz egin nion eta medikuntzaren beste arlo batzuetan berrikuntza honek suposatu dezaken aldaketaz. Zientziak eta ikerketak

krisi garaietan duten garrantzia ikusarazi nion, birus honek eragindakoak kasu. Kontzientzia kolektiboaz aritu nintzaion, norberaren interesaren gainetik gizartean pentsatzeak zuen garrantziaz, bereziki garai hartan bizi genuen egoeran. Esan nion oso berekoia iruditzen zitzaidala txertoa jartzea erabakitzen zuten pertsonak izan zitzaketen ondorioen zain egotea txertoa jarri edo ez jarri erabakitzeko. Etikoki bere jarrera oso zalantzazkoa iruditzen zitzaidala adierazi nion.

Irribarre txiki batez begiratzen ninduen, baina ni harro nengoen nire solaskide gazteari eskaini nion lezio moralaz, eta dohainik gainera. Baina, ikusiko duzuen moduan, gertaerek aurreikusi ezin diren bideak hartzen dituzte.

Hurrengo egunean etxera etorri zen eta bere lan egiteko aukerez aritu ginen. Bere trebetasunei buruz galdetu nion, ordura arte egindako lanei buruz eta, batez ere, bere asmoei buruz. Elkarriketaren une batean, ilea moztan abila zela esan zidan eta ile-apaindegi bat jartzea berarentzat lan-irteera ona izan zitekeela gaineratu zuen.

- **J'ai une tondeuse à cheveux. Demain j'essaierai avec toi et tu verras à quel point je suis bon Je me suis coupé les cheveux moi-même et regarde le résultat** (Ilea mozteko makina bat daukat. Bihar zurekin probatuko dut eta ikusiko duzu zein ona naizen. Nire ilea nik neuk moztu dut eta begiratu emaitza) – esan zidan konbentzituta

Eskatu bezala, bere ileari begiratu nion: goialdean, sasoi betean zegoen brokoli baten antza zuten txurro batzuk ageri ziren, eta behealdean, berriz, ilea zeroan moztuta antzematen zen, aurrez deskribatutako makina ospetsuari esker. Une batez, nire burua goizeko 6:50 ean eta ispilu aurrean irudikatu nuen, nire lagunaren antzeko orrazkerarekin.

- **Blanchard, tu ferais mieux d'essayer d'abord quelqu'un d'autre et je vois le résultat.** (Hobe zenuke lehenik besteren batekin hastea eta, horrela, emaitza ikusten dut) – esan nion leunki.

Isiltasun deseroso baten ondoren, bere erantzuna iritsi zen:

- **Oui, como las vacunas ¿no?** (Bai, txertoekin bezala, ezta?) – galdetu zidan gaztelania perfektuan, nire aurpegiak egin zezakeen edozein keinu ikusi nahian begiratzen ninduen bitartean. Bete-betea eman zidala onartzen dut.

Nahiz eta azkenaldian asko ez diren izaten, egun batzuek amaiera ona izaten dute eta hura haietako bat izan zen, zalantzarik gabe. Kasualitatez, familiako gazte bat agertu zan etxean eta, oharkabea ziurrenera, ustezko ile-apaintzailearen ilea mozteko proposamena onartu zuen. Blanchardek ezkerreko eskuarekin hartzen zuen ilea mozteko makina eta, eskuinean, boluntarioaren burua ahalik eta posizio onenean jartzen zuen. Harriduraz

begiratzeko nola erortzen zen ilea lurrera profesionala eta bezeroa hizketan lasai ari ziren bitartean. Eragiketaren emaitza, gutxienez, eztabaidagarria izan zen. Baina eztabaidaezina izan zena zen egoera deseroso hartatik onik atera nintzela.

9. Kapituluia

ZERGATIA



- **¿París? ¿Pero conoces París?** (Paris? Paris ezagutzen al duzu?) – galdetu nion egunkari bateko azaleko argazkian irribarretsu agertzen zen Frantziako errepublikako presidenteaz ari ginela.
- **Sí, yo estar allí unos años estudiando informática.** (Bai, informatika ikasten urte batzuk han eman nituen.)

Ikasten? Parisen? Informatika? Bere baieztapenak harritu egin ninduen, aitortzen dut. Atzera begira, susmatzen hasia nintzen ohiko migratzailea ez zela. Pertsona informatua zen, munduko eta Europako gaurkotasunezko gaiak ezagutzen zituen eta horiei buruzko iritzia zuen, ingelesez hitz egiten zuen, teknologia berriak trebetasunez erabiltzen zituen eta besteak beste, existitzen zirenik ere ez nekien arropa-markak ezagutzen zituen, baina zaudete ziur azken honek ez duela meritu handirik.

Sorlekua uzten duten pertsonak hainbat arrazoiek bultzatuta hartzen dute erabakia. Arazo politikoek pertsona askok bere herrialdeetatik alde egin behar izatea eragiten dute (gerrak, estatu-kolpeak, indarkeria politikoa...). Duela hilabete batzuk estatu-kolpe bat izan zen Gabonen, baina Blanchardek herrialdetik ihes egin zuenean egoera politikoa egonkorra zen. Beraz, ez dirudi ihesaren zergatia hori izan zenik.

Herrialde baten garapen ekonomikoak eragin zuzena du bertako biztanleen bizi-kalitatean. Krisi ekonomiko larriak dauzkaten eta pobreak diren herrialdeetan migrazioa premiazko kontua da, izan ere bertako biztanleek bizimodu hobe eta duinago bat bilatzeko beharra baitute. Aurreko kapitulu batean nioen bezala, Gabon ez da herrialde behartsua. Uranio, manganeso eta petrolio hobiak ditu. Gabonen azaleraren %85 basoa da; ondorioz, ez da harritzekoa herrialde honetan zur-jarduerak duen garrantzia. Herrialdearen esportazioetan, egurra bigarren postuan dago petrolioaren atzetik. Gainera, Wikipedian irakurri dudanagatik, urtean 43.931 tona arrain arrantzatzen dira. Ez daukat ezagutza handirik arrantzaren inguruan baina ez dirudi kopuru makala denik.

Gure adiskidearen ezaugarriek erakusten zutenaren arabera, ez zirudien pobrezia-egoerarik bizi izan zuenik eta ez zirudien bere herritik alde egiteko arrazoiak migratzaile gehienek izaten dituztenak zirenik.

Beste aukeraren bat ere banerabilen buruan: jatorrizko herrialdean egindako delituren batengatik ihes egin izana. Gerora izandako zenbait egoera kontutan izanda erabat baztertu dut arrazoi hori eta, gainera, Blanchardek irmoki ukatu du beti hori. Konfiantzan oinarritu nintzen oraingoan ere.

Baina honaino iritsita, zuetariko edonor bere garaian neure buruari egin nizkion galdera berak egiten ariko zarete:

Zergatik alde egin zuen gure lagunak Gabonetik?

Zergatik murgildu Gibraltarko itsasarte arriskutsuan bere bizitza jokoan jarritz?

Europar sartu zenetik zergatik egon da hainbeste atsekabe eta miseria sufritzeko prest?

Zergatik bizi jaiotzen ikusi zuen lurraldetik hain urrun?

Bere bizitza eta ibilerak ondo asko ezagutzeko adina denbora pasa dut berarekin. Bere herrialdeari, kulturari, bizimoduari, ohiturei, familiari eta haurtzaroari buruzko istorio asko kontatu dizkigu. Baina, zuzenean edo zeharka, bere herrialdetik irtetearen zergatiaz hitz egiten genuen bakoitzean, bere jarrerak tristura eta ondoeza transmititzen zuen. Horregatik, Europara egindako bidaiaren zergatiari buruz inoiz ez diogu zuzenean galdetu.

Zeharka bada ere, gure solasaldietan bildutako material horrekin guztiarekin, aldez aurretik planteatu ditudan galdera guztiak erantzuten dituen pelikula bat irudikatu nuen. Nire lagunak bizitzaz publikoki hitz egitea ez zait zuzena iruditzen, baina era berean, emango

dizuedan informazioak ondorengo kapituluetan irakurriko duzuen guztia hobeto ulertzeko aukera emango dizuela uste dut.

Blanchard bere herrialdean posizio sozial ona zuen pertsona da. Hiriburuko familia onekoa zen. Aita lurraldeko enpresa garrantzitsu batean ingeniaria zen eta baita hainbat ondasunen jabe ere. Txikitan barnetegi batean ikasi zuen eta gaztetan, lehen idatzi bezala, Parisera joan zen informatika ikasketak egitera. Baina gurasoek izan zuten istripu arraro eta argitu gabeko baten ondorioz, umezurtz geratu zen. Une horretatik aurrera, bere herrialdean seguru ez zela sentitzen ziurtatu zigun, batez ere, inguru hurbilenetik bere kontrako mugimendu arraroak sumatzen hasi zelako. Lurrak, jabetzak eta familia-arazoak egon daitezke Blancharen Europarako bidaiaren atzetik.

Ez dakit, agian egunen batean, zehatz-mehatz kontatuko digu zergatik ihes egin zuen. Agian egunen batean, eseri eta hitz egingo dugu, partekatutako urteek ematen duten konfiantzarekin, agian... Baina, egia esan, beharrezkoa al da bidaiaren zergatia jakitea ala ez? Edo, bai eta ez? Datu objektibo bakarrak hauek dira: Afrikatik irteteko bere bizia arriskuan jarri zuen eta laguntza behar zuen. Harritu egiten ninduen ez zuela miseriatik eta pobreziatik ihes egiten ikusteak. Harritu egiten ninduen frantsesez gain, zeukan ingeles mailak eta bere herrialdeko fang hizkuntza eta Marrokoko egonaldian ikasitako arabiera oinarritzkoa jakiteak. Bitxia iruditzen zitzaidan

frantses perfektu bat hitz eginda ere eta behin Europan egonda, Frantziara lanera joan nahi ez izatea.

Gogoeta burutsu haietatik esnatu nintzenean, begira geratu nintzaion eta hauxe esan nion:

- **Joder!!**
- **¿Qué pasa txabal?** (Zer da ba motel?) – esan zidan gaztelera perfektuan.
- **O sea, ¡que nos ha tocado el pijo!** (Pijoa tokatu zaigula!)– esan nion arretaz begiratzen nuen bitartean.
- **Qui, moi “pijo”?** (Ni pijoa?) **¿Qué es pijo?** (Zer da pijo?)– jakin-minez galdetu zidan.
- **C'est un concept difficile à définir, mais avec le temps tu le sauras. Surtout si tu es toujours dans cette ville. Ne t'inquiète pas.** (Zaila da kontzeptu hori definitzea baina denborak aurrera egin ahala jakingo duzu. Batez ere, hiri honetan jarraitzen baduzu. Ez kezkatu.)

10. Kapituluia

ARTISTA



- **Hoy mucho frío. Mañana no sabe** (Gaur hotz handia. Bihar “ez jakin”)- hori izan zen goizeko bere lehen esaldia.

Segundo batzuz serio begiratu ondoren, galdetu nion:

- **Tu as vu des films des cow-boy et des indiens?** (Indioen eta cowboyen filmak ikusi al dituzu?)

- **Oui, claro. ¿Por qué?** (Bai, noski, zergatik?) - apur bat minduta erantzun zidan.

- **Parce que ton espagnol est comme celui de Taureau assis.** (Zure gaztelaniak Zezen Eseriaren gaztelaniaren antz izugarria duelako.)
- ?? (Ez zuen ezer esan, baina aurpegian galdera ikur pare bat nabari zitzaizkion.)

Frantsesez azaldu nion egindako galdera zinematografikoaren zergatia. Ezin izan zion barreari eutsi, baina ez nire txistea ona zelako, nire ahoskerak dibertitzen zuelako baizik. Itxuraz, berak erabiltzen zuenarekin edo Parisen entzundakoarekin batere antzik ez zuen nire frantsesak. Beraz, berdinketa markagailuan.

Bere gaztelania egunez egun hobetzen zihoan arren, xelebre xamarra zen oraindik. Inperfekzioan sortutako perfekzioa zen. Banekien, denbora igaro ahala, bere hutsegiteen jakitun izango zela eta haiek zuzentzen saiatuko zela eta pena puntua ematen zidan. Hala ere, nire lagunak bazekien hizkuntzaren ezagutzak ate asko irekiko zizkiola eta, horrexegatik, edozein egoeratan gaztelania erabiltzen saiatzen zen. Euskararekin ere saiatu zen, udaletxeak antolatutako ikastaro batean aritu zen eta bere ikasketa prozesuan oso urrun iritsi ez bazen ere, gaur egun erraz erabiltzen ditu bere disko gogorrean grabatutako zenbait hitz: “gabon”, “egun on”, “zer moduz”, “jakina”, “ongi, eta zu?” eta “ondoloin”, besteak beste.

Larunbat goiz hartan berarekin geratu nintzen Orio ezagutzeko. Gure lagunak interes handia zuen inguruko guztiarekiko. Beti zegoen paraje naturalak, mendiak eta

herriak ezagutzeko prest, eta gure bizimoduaren eta ingurunearen gakoak ulertzen saiatzeko galdera asko egiten zituen. Oriora iristean, bideo bat grabatzea proposatu zidan, kazetari ausart baten papera hartuz. Non zegoen erakutsi nahi zien lagunei eta bertako ohiturekiko gertutasuna agertu nahi zuen.

Bere portaeran nolabaiteko itxurakeria antzematen nuen. Jaioterria utzi zuenetik, bere lagun eta ezagunei bizitza hobe zuela ikusarazi nahi ziela iruditzen zitzaidan. Migratzaileen artean portaera ohikoa dela uste dut, bere bidaiaren arrakasta eta erabakietan asmatu izana erakusten saiatzen baitira. Ondo pentsatuta, bere jarrera ez zen gutako edonork daukanarekiko oso desberdina. Izan ere, gure esperientzia positiboen eta bisitatzen ditugun leku ederren argazkiak eta bideoak etengabe partekatzen baiditugu, dena bide onetik doala erakutsi nahian.

Orioko kaleetan barrena genbiltzala. noizean behin, geratu eta inguruan zuen guztiaren laburpen bat eskatzen zidan hurrengo grabazioan azaltzeko asmoz. Entsegu labur bat egin ondoren, prest zegoela jakinarazten zidan. Eszena grabatzen nuen bitartean bertan jaiotako edonoren etorriarekin hitz egiten zuen. Herriko leku ezagunenetan grabazioak egin ondoren, garagardo bat hartu eta etxera itzuli ginen. Bazkalostean, bideoa editatzen hasi ginen. Nire lagunak plataforma sozial ezagun batean kanal propio bat irekitzeko asmoa adierazi zidan. Ziur zegoen bere bideoek interes handia sortuko zutela eta jarraitzaile

kopurua azkar handituko zela. Eskualdea esploratu, bideoak filmatu eta jarduera horrekin diru-sarrerak lortzeko aukerarekin amesten zuen, hau da, gaur egun gazte eta hain gazte ez diren askok duten amets bera zuen.

Gau egun, “Influencer” izatea, sormenarekin, ikusgarritasunarekin, audientzia globala lortzearekin eta iritziak nahiz aholkuak emanaz dirua irabazteko aukerarekin lotzen da. Pentsatzen dut beste pertsona batzuegan eragitea dela helburua, motibatzeke eta bide jakin bat har dezaten lortzeko.

Baina ikusten dudana da, kasu askotan, “influencer” hauek beste pertsona batzuen pentsamendua edo portaera baldintzatzen saiatzen direla, behar pertsonalak asetzeko edo besteen aldean abantailak lortzeko. Nolanahi ere, eragina izatea da kontua, eta hain berria dirudien egoera hau aspaldi asmatu zen. Profetak, etorkizuneko errebelazio edo iragarpenak jasotzeko gaitasuna zuten pertsonak zirela uste zen eta jainkoaren mezularitzat hartzen ziren. Erdi Aroko berritsuek erremedio edo elixir mirakulutsuak saltzen zituzten hainbat gaixotasunetarako sendabideak aginduz. Eta urrutirago joan gabe, zenbait politikarik dagoena eta ez dagoena agintzen dute garai bateko profeten eta berritsuen antzera.

Badakit, gai honetatik aldentzen ari naiz. Ezin izan dut saihestu. Horiek dagoeneko adinean aurrera doan tipo

baten hausnarketak dira, gainerakoen portaeran ahalik eta gutxien eragiten saiatzen dena eta, aldi berean, aurrean jartzen zaion guztia zalantzan jartzen duena bere buruarengan ahalik eta eragin txikiena izan dezan. Tira, ohiko burugogor horietakoa. Letra larriz idazten den benetako MUSIKA hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan egiten zela uste duena eta gaur egun ekoizten den guztiak ezer gutxi balio duela edo garai haietakoaren kopia txar bat baino ez dela pentsatzen duena.

- On pourra enregistrer une chanson un de ces jours (Egunen batean abestiren bat grabatu genezake) – bota zidan gurekin bazkaltzera etorri zen egun batean eta ordenagailuarekin abesti bat editatzen ikusi ninduenean. Bazekin musikazalea nintzela eta noizean behin, etxean nituen instrumentu ezberdinekin melodiak grabatzen nituela.

- Pas de problème, mais quel genre de musique aimez-vous? (Ez dago arazorik, baina, zer musika mota gustatzen zaizu?) – erantzun nion, okerrenaren beldur.

- J'adore le rap. Je me sens très identifié à ce type de musique. (Rap musika maite dut. Oso identifikatuta sentitzen naiz musika mota honekin.) Hartzak MUSIKA letra larriz, pentsatu nuen neure artean.

Rap musika ez zait inoiz gustatu. Behin eta berriz errepikatzen den oinarri instrumental erritmiko baten gainean, kantariak errimak kantatzen edo erreztatzen ditu. Bizitzaren istorio edo esperientziak izaten dira gehienetan, zenbaitetan bat-batekoak eta abestiaren tenpoarekin bat egiten dute. Tira, bertsolari baten antzera baina Amezketako Uharte auzokoa izan beharrean, Bronxen bizi dena. Hori bai, bertsolariari behintzat, ulertu egiten diot.

- Actuellement, le rap est plus commercial. J'aime plus le rap vindicatif. (Gaur egun, rap musika komertzialagoa da. Gehiago gustatzen zait rap aldarrikatzailea.)

- Si tú lo dices, así será (Zuk hala badiozu, horrela izango da) – ezer esan gabe berriro ere neure artean bueltaka eta buruarekin arinki baieztatzen.

- Tu vas a ver que bien canto yo (Ikusiko duzu zein ondo kantatzen dudana)– seriozki esan zidan. Honetan ere onena zenaren ziurtasun osoa zuelakoan nago.

Eta tipoa, internet bidez oinarri instrumental bat bilatu, deskargatu eta, besterik gabe, letra inprobisatuz abesten hasi zen. Letra erabat inprobisatzen zuen eta horrek badu meritua. Hala ere, arazo bat zegoela konturatu nintzen berehala: aldarrikatzaileak diren letrak bidegabetzat hartzen den zerbaiten aurka abesten dira,

baina euren balioa galtzen dute entzuten dituenak, tutik ere ulertzen ez badu niri gertatzen zitzaidan moduan. Arratsalde horretan, zein ondorengo saioetan, bere bizitza, bidaia eta arazoak kontatzen zituen abesti pare bat grabatu genituen. Gai horiei heltzen zien normalean, hala uste dut behintzat. “Rap Basque” (Rap euskalduna) izendatu zuen bat eta bestea, “Nouveau depart” (“Hasiera Berria” izan zitekeena).

Nire laguna definitzen zuen inozentzia eta ilusio nahasturari estimua nion. Baliteke, zenbait unetan, Blanchardek ni neu gaztea nintzeneko uneak gogora ekartzea; hobe pentsatuta, oraindik ere ezaugarri berak ditudala uste dut. Liburu hau, esaten ari naizenaren erakusle dela esango nuke. Nolanahi ere, nire lagunarekin partekatu ditudan urteek eskaintzen didaten perspektibarekin, konturatzen naiz bere gogo biziak eta xalotasunak arazo askoren aurrean jarri dutela, bere bizitza nabarmen zailduz. Zorteak edo, hobeto esanda, zortetik ezak kasu honetan, bere kontra jokatu du. Baina hori, beste istorio bat da.

12. Kapituluia

FUTBOLA



- **Tu n'y crois pas, mais je joue très bien au football** (Zuk ez duzu sinesten, baina ni oso ona naiz futbolean jokatzen) - bota zidan behin Realaren futbol partida bat telebistan ikusten ari ginela. Talde donostiarra denbora gutxian bere talde gogokoena bihurtu zen eta ez zuen txuri-urdinen partidu bat galtzen.
- **Si tu étais très bon, tu serais arrivé à l'aéroport de Hondarribia en jet privé et 20 journalistes t'attendraient. Je ne**

pense pas que ce soit ton cas. (Oso ona bazina Hondarribiko aireportura hegazkin pribatu batean iritsiko zinen eta 20 kazetari egongo ziren zure zain. Eta ez dut uste zure kasua izan zenik)

- **¡Qué cabrón!** (Bai kabroia)– esan zidan barrez.

Blanchardek gustuko du futbolean jokatzeari. Ni izendatzeko gai naizen baino askoz talde gehiagoren izenak ezagutzen ditu, baita Europako ligetan lehiatzen diren jokalariei askorenak ere. Noizean behin futbol partidak ikusten genituen etxean eta futbolari buruzko komentarioak teknikoak eta nahiko sinesgarriak ziren. Kasualitatez, Aubameyang futbolaria, gabondar jatorrizkoa eta Frantzia bizi zena, Bartzelonak fitxatu zuen 2022-2023 denboraldian ligako neguko merkatuan. Gure lagunak gozatu ederra hartu zuen Barçarekin jokatu zuen zazpi hilabeteetan sartu zituen hamahiru golekin. Baina ziur naiz behin baino gehiagotan pentsatuko zuela kontraste haren bidegabekeria; futbolean jokatzera iristen den atzerri baten etorrera arrakastatsua eta eskubiderik ez dutelako, ezkutuan, atzeko atletik, bera bezala, Europara sartzen direnen artekoa, alegia.

Behin esan zidan, bertako talde batekin entrenatzen hasi zela asteen bitan. Benetan ilusioz beterik ikusten zen eta bere benetako futbolari balioa erakusteko gogoz. Federatu egingo zutela zioen eta horrela, makina bat aldiz galdetuta ere, izena jakiteko aukerarik izan ez nuen

talde batekin partida ofizialak jokatzeko aukera izango zuela:

- **Mais avec quelle équipe t'entraînes-tu?** (Baina, zein talderekin entrenatzen duzu?)
- **La vérité est que je ne suis pas sûr** (egia esan, ez nago oso ziur) – lasaitasun harrigarritz erantzun zidan. Ondo pentsatuta ere, egungo futbolarietako askok gauza bera erantzungo lukete, alkandora bezala aldatzen baitute taldez. Baina ez zen kasua.
- **Mais où diable t'entraînes-tu?** (Baina, non arraio entrenatzen zara?)
- **Là, au sommet d'une colline, en suivant un chemin étroit et sinueux.** (Han, mendixka baten goialdean, bide estu eta bihurri batetik gora eginez.)

Tipo honek Adarra mendian entrenatzen du, pentsatu nuen berriro ere neure artean. Baina geroago konturatu nintzen ez zela horrela, eta bere azalpena ez zela oso okerra egiaztatu nuen.

Nire lagunaren ezaugarri berezi bat, gauzei buruzko zehaztasun falta da eta susmoa dut afrikar askorena ere badela. Niri sinestezina egiten zitzaidan, tipoak, entrenatzen ari zeneko taldearen izena ez ezagutzea. Edo zehazki ez jakitea zein ordutan geratuta zegoen edo nora joan behar zuen. Egoeren ideia orokorrekin konformatzen zen, gauzak zehaztea asko kostatzen zitzaion. Ziur aski, zehaztaper hori lotuago dago gurea bezalako gizarteekin, lehentasuna ematen baitiogu antolaketari, denborari,

epeei, definizioei, bereizketari edo ordenari. Nahiz eta bere jarrerak maiz, urduritasuna eragiten zidan, onartu beharra daukat bizitzaren ikuspegi lasai eta patxadatsu horrek inbidia pizten zidala, batez ere, lanari zegozkion arazoez zipriztindutako egunetan: joan-etorrietako presek, saihestu ezinezko hitzorduek edota zeregin amaigabeek markatutako egoeretan.

Egun batzuk lehenago, bere talde misteriotsuarekin egindako entrenamenduetako batera eramango nuela agindu nion. Futbolean non eta norekin jokatzen zuen jakin nahi nuen, eta bide batez, asko eskatzea ez bazen, taldearen izena ere ezagutu nahi nuen. Kotxez, Herrerako irteera hartu eta Larratxorantz abiatu ginen, entrenatzen zuen futbol-zelaira. Eta ez, ez zen Adarra, baina arrazoia zuen bidea estua eta bihurgunez betea zela esaten zuenean.

Une batez, Bilbon kontatzen zen txiste bat gogoratu nuen. Esaten zenez, Jesukristo, ahalguztiduna izanik, aurrekaririk gabeko umiltasun osoz, Belenen jaio zen Botxon jaio zitekeela jakinda.. Eta nire lagunaren umiltasuna baloratu nuen, Herrerako Sportingekin entrenatzen baitzuen, Hernaniko Kirol Taldean aritu beharrean, behin baino gehiagotan iradoki nion bezala.

Autotik jaitsi eta taldekideak agurtu zituen. Kamerundarrak, ginearrek, marokoarrak eta auzoko gazteak zirela esan zidan. Haietakoren bat aurkeztu zidan eta maitekiro eta adiskidetasunez hitz egiten zutela ikusi nuen. Beroketaren ondoren partidatxoa jokatu zuten, eta aitortu behar dut, tipoak ukitu ona zuela ezkerrarekin. Ez

zuen partida ofizialik jokatu eta, egia esan, ez dakit zergatik. Bere azalpenetan, fitxa, dokumentazioa, federazioa, berria omen zen entrenatzailea, erosoak ez ziren ordutegiak... aipatzen zituen, zehazte faltaren eta konkrezio ezaren beste erakusgarri bat erakutsiz.

Batzuetan futbolaren alderdi asko deabrutzen dira; horien artean, gehiegizko soldatak edota jarrera bortitzak. Arratsalde hartan ordea, baloitxoaren joko hura, gure lagunaren egoera berean egon daitezkeen pertsonak integratzen laguntzeko oso elementu interesgarria izan daitekeela ulertu nuen. Futbolak ez du hitzen beharrik ulertua izateko. Driblin on bat edonon balioesten da, bakoitzaren hizkuntza edozein delarik ere. Bestalde, tokiko taldeetan parte hartzeak, kirol arlotik haratago doan komunitate bateko kide izateko aukera ematen dio etorkina denari, zalantzarik gabe.

Duela egun gutxi Serigne eta Moussaren kasua irakurri nuen, ekainean Espainiara pateran iritsitako bi senegaldar gazteena. Lehenik eta behin, "paperik gabe ez zara ezer" zioten. Ondoren, Sevillako San Jeronimo Kirol Klubean futboleko jokatzen zutela azaldu zuten, federatu ahal izateko dokumentazioa izapidetu baitzieten. Albistea irakurrita, gure lagunak futbolarekiko zuen ilusioa gogoratu nuen, beti ere jokalaririk aparta zela azpimarratuz. Larunbat arratsaldetan bere lagunekin jokatzen zituen partidak gogora ekarri nituen, baita hiru bat hilabetez Errenteriako gazte talde batean egindako entrenatzaile lanak ere.

Eta zergatik irakurri nuen Serigne eta Moussaren artikulua? Blanchard ezagutu nuenetik, interes handiagoz irakurtzen ditudalako migrazioarekin lotutako berriak. kaiukoa, patera, Lampedusa, Kanariar ugarteak, erregularizazioa, deportazioa, laguntzailerik gabeko adingabe atzerritarrak, pasaportea, kontsulatua, jauzia eta beste hainbat hitzek nire arreta pizten dute egunkarietan irakurri edo irratan zein telebistan entzuten ditudanean. Uste dut hanka bat hautsi eta kalean makuluak ikusten hasten zarenean bezala izango dela, ordura arte zeure aurrean ezkutatzen zirenak, alegia.

12. Kapitula

PASAPORTEA



Azken hamarkadetan gauza asko aldatu dira zientziaren, teknologiaren, diseinuaren, modaren, kulturaren edo arkitekturaren alorrean, baina baikorra izanda ere, migrazioaren arazoak joan den mendean utzi genuen puntu berean jarraitzen duela iruditzen zait.

1. Ariketa:

Imajina dezagun une batez, oporretara goazela eta ezagutzen ez dugun herrialde bateko hiri ezagun batera iritsi berri garela. Irudikatu dezagun ulertzen ez dugun hizkuntza batekin eta guretzat arrotzak diren ohiturekin topo egiten dugula. Ez dakigu non hartu ostatu, ez non jan, ez nora joan. Zer egingo genuke? Ziur asko, turismo-bulego bat bilatzea erabakiko genuke, hau da, hiriko turismo-informazioa koordinatzen duen gunera: intereseko lekuak,

informazioa eta ostatu-erreserbak, aisialdi-zerbitzuak, garraio publikoa, museoak, jatetxeak eta dendak, besteak beste, informazio guztia leku bakar batean izango genuke .

2. Ariketa:

Ariketa hau lehenengoaren antzekoa da, baina bi salbuespenekin: batetik, ez gaude oporretan, beharrak estutu egiten gaitu eta, bestetik, ez dugu dirurik. Zer egingo genuke? Seguru asko kalez kale ibili, geure egoera berean dagoen jendeari galdetu, gaua aterperik gabe pasa, jateko kalean dirua eskatu eta leihatilatik leihatilara joan informazioa eta laguntza eske.

Nire lagunaren antzeko egoeran dauden pertsonen hiriak eskaintzen dizkien baliabideak gertutik ezagutzeko aukera izan dut. Ez naiz ni izango bitarteko horiek nahikoak ote diren eztabaidatuko duena, besteak beste, duela gutxi ezagutu ditudalako halabeharrez, eta, beraz, ez dudalako irizpide nahikorik baliabide horiek baloratzeko. Eta ez naiz izango ezta ere, zerbitzu horien egokitasuna zalantzan jarriko duena, gizarte-bazterkeriaren eremu horretan borondatez edo profesionalki atsedetik gabe lan egiten duten pertsona guztiekiko errespetuagatik batez ere. Baina ondorioztatu dut, turistek ez bezala, migratzaileek zailtasun handiak dituztela informazioa lortzeko eta administrazioek kudeatzen dituzten baliabideak eskuratzeko.

Atsegin handiz egunotan irakurri dut, proiektu pilotu gisa, Bilbon migratzaileentzako harrera-zerbitzu bat (Harreragune) martxan jarriko dela dioen albisteak.

“Harrera ona” lortzeko, migratzaileentzat eskuragarri dauden baliabide guztiei buruzko informazioa emango duen leihatila bakar moduko bat. Tira, migratzaileentzako turismo bulego baten antzekoena izango litzatekeena.

Aspaldi irakurri nuen pentsioa kobratzen ez zuen gizon baten kasua. Farmazian botikarik ere ematen ez zioten pertsonarena, erregistroan ez zelako agertzen (bizirik zeuden pertsonen erregistroan). "Sistema"n baja emanda zegoen. Ezabatua izan zelako, ez zelako existitzen edo hilda zegoelako. Adibide ona hauxe: zu ez zara inor hala adierazten duen paper batek baieztatzen ez duen arte. Izaki paranormal bat izango zara edo ilusio optiko bat agian, baina zu ez zara zu.

Oso litekeena da horrelakoxea izatea gure lagunaren sentsazioa aholkularitza edo laguntza ofizialen bat eskatzera joaten zen aldi bakoitzean. Leihatila batera iritsi bezain laster, tokiko funtzionarioak paper madarikatua eskatzen zion, pertsona bat zela, izena zuela, sorleku bat zuela eta jaiotze-data bat ere bazuela ziurtatzen zuena. Imajinatzen dut une horietan nire lagunak malenkoniak gogoratuko zuela Marokoko txokoren batean utzitako pasaporte berde hura. Europarako bidaian arazo larria izan zitekeen liburu txiki hura, ezinbestekoa zen orain edozein mugimendu egiteko. Espainiara iristean Blanchardek pasaportea gainean eraman izan balu, bere jatorrizko herrialdera deportatuko zuten ia seguru. Orain, ordea, pasaporte hori bera ezinbesteko agiria zen aurrera egiteko.

Alferrikakoak izan ziren Donostian erroldatzeko egin zituen saiakerak, besteak beste, itsasartearen beste aldean geratu zen pasaporte eskatzen baitzioten horretarako. Dokumentu berri bat formalizatzeko irtenbiderik errazena Parisera bidaiatzea zen, Gabonek Frantzia duen enbaxadara. Baina une hartan, paperik gabeko migratzaile batentzat ez zen helburu erraza poliziaren kontrol dexente duen muga bat zeharkatu behar izatea. Ez dut nik esaten, Parisera iristeko bere lehen ahaleginari buruz kontatzen zituen gertaerek horixe bera zioten. Gainera, hilabete haietan, muga itxita egon zen denbora batez, Covid pandemiaren ondorioz.

Egoera aztertu eta Frantziara bidaiatzea zaila zela jakinik, Gabonek Madrilen duen enbaxadari kontsulta egin genion, eta pasaporte berri bat lortzeko Parisera bidaltzen gintuzten berriro.

Ezintasun egoera hartan, bitxia bada ere, Frantziako atak ixten zizkion SARS-CoV-2 birus horrek berak Gabongo atak ireki zizkion, birtualki bazen ere. Azaltzen saiatuko naiz. Aldi baterako, eta kanpoan bizi ziren gabondarrek pasaporte berritzeko herrialdera itzuli behar ez izateko, izapidea telematikoki egiteko aukera eman zuen gobernuak kanpotik zetozenek bertakoak kutsatu ez zitzaten. Izan ere, garai hartan Covid-ak zuen eragina oso txikia baitzen Gabonen.

PRÉSIDENCE DE LA RÉPUBLIQUE-MINISTÈRE DE
L'INTÉRIEUR, DE LA DE LA SÉCURITÉ PUBLIQUE DE
L'IMMIGRATION ET LA DÉCENTRALISATION-FORCES
DE POLICE NATIONALE DIRECTION GÉNÉRALE DE LA
DOCUMENTATION ET DE L'IMMIGRATION.

Gabonen pasaporteak egiteko ardura zuen erakundearen izena lehen aldiz irakurri nuenean, prozesua izena bezain luzea izango zela susmatu nuen. Eta denborak arrazoia eman zidan.

Aipatutako erakundearekin harremanetan jarri ginen, eta pasaporte berri bat lortzeko beharrezko dokumentazioaren berri eman ziguten: jaiotza-agiriaren kopia, pasaporte zaharraren kopia, koloretako argazki bat atzealde zuriaren gainean, beste pertsona batek pasaportea jaso eta tasak ordaintzeko baimena, webgunearen bidez bete beharreko formulario bat, dokumentua galdu edo lapurtu zela frogatzen zuen atestatu bat eta Espainian bizi zela egiaztatzen zuen ziurtagiri bat. Horrela, anestesiarik gabe.

Blanchardek jaiotza-agiriaren kopia bat zuen (ikusten da prestaturik etorri zela), baita Marokon "galdu" zuen pasaportearen argazki bat ere. Ongi.

Blanchard kaleko fotomatoi batera joan zen, lehenbailehen atzealde zuriko argazkiak eskuratzera. Ederki.

Blanchardek lagun bat zuen Gabonen, pasaporteja jaso eta zegokion bulegoan, pagatu beharreko tasak ordainduko zituena. Primeran.

Blanchard formularioa betetzeko gai izan zen, hori bai, nire laguntza paregabearekin eta 20 saiakeretan huts egin ondoren. Formularioak, ohikoa denez, eskatzen ziren dokumentu ugarietako batean jasotako datuak behin eta berriz eskatzen zituen, baina tira, halaxe izango da. Zeure izena, abizenak, helbidea, egoera zibila, jaiotze-data edo amonaren jaiotza-agiriaren kopia konpultsatua behin eta berriz sartzea beharrezkoa zen. Dena inbaditzen duen burokrazia korapilatsuaren adibide ezin hobea zen. Horretan nenbilela, geure gizartea Afrikakotik uste dugun bezain urrun ez dagoela ohartu nintzen.

Hala ere, gakoa zen dokumentu bat falta zela, azkena, behin betikoa. Espainian bizi izanaren ziurtagiria.

- **¿Pero, qué es ese certificado?** (Baina, zer da ziurtagiri hori?) – galdetu zidan bere gaztelania gero eta hobean
- **C'est un document avec lequel vous prouvez que vous êtes en Espagne, que vous habitez en Espagne. Par exemple, le certificat d'inscription á la marie.** (Espainian zaudela eta Espainian bizi zarela erakusteko erabiltzen den dokumentua da. Adibidez, errolda ziurtagiria.)
- **Pero, para el empadronamiento me pide pasaporte. Y para pasaporte me pide empadronamiento.** (Baina erroldatzeko

pasaportea eskatzen dit. Eta pasaporterako erroldatzea eskatzen dit.)

- **A eso se le llama “La pescadilla que se muerde la cola”.** (Hauxe gurpil-zorua. “Buztanari hozka egiten dion arraintxo” esaten zaio.)
- **Primo, ¿pescadilla?, ¿Eso es pescado?** (“Primo”, legazkumia? Hori ez al da arraina?) – galdetu zidan
- **Sí, eso es** (Bai, hori da) – erantzun nion ironiaz. Egunen batean lasaiago azalduko niola agindu nion.

“Primo” aspalditik deitzen zidan. Egun haietan bisitatu genituen leihatila ugarietako batera hurbildu ginenean hasi zen dena. Dagokion kudeaketa egin ondoren, arreta eman zigun pertsonak nire lagunarekin nuen harremanaz galdetu zidan.

- **¿Éste? Es mi primo** (Hau? Hau nire lehengusua da) – erantzun nion bitan pentsatu gabe.

Solaskideak harriduraz begiratu zidan. Isilune deseroso bat egin zen, eta berehala egoera leuntzen saiatu nintzen.

- **En realidad, es un amigo mío** (Berez, nire lagun bat da) – esan nion irribarre txiki bat eginez.

Handik minutu batzuetara, bulegotik kanpo, Blanchardek galdetu zidan:

- **¿Qué es primo?** (Zer da “primo”?)

- **Mi primo sería el hijo de mi tía o de mi tío. “cousin” en francés. Bueno, en realidad la palabra “Primo” tiene también otro significado que si esto sigue así quizá tendré que explicarte algún día**(Nire lehengusua izebaren edo osabaren semea izango litzateke. "cousin" frantsesez. Beno, egia esan, "primo" hitzak beste esanahi bat ere badu, eta honek guztiak horrela jarraitzen badu, agian egunen batean azaldu beharko dizut hau ere) - erantzun nion.

Eta harrezkero hori izan da nire izena berarentzat. Txantxa moduan hasi zena ahaidetasuna adierazten zuen izen bihurtu zen, hurbiltasuna eta konfiantza islatzen zuena. Agian horregatik guztiagatik gustatzen zitzaion niri horrela deitzea, "Primo". Hala ere, batzuetan pentsatzen dut, horretaz oso kontziente izan gabe, lehengusu batena ez zen figura bat irudikatu dudala harentzat: urte batzuk lehenago galdu zuen aitaren irudia, agian. Baina horiek guztiak egunen batean, aukera izanez gero, berarekin argitzen saiatuko naizen usteak baino ez dira.

Blanchard erroldatuta ez bazegoen ere, Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuetako arduradunak dokumentu bat eman zion, zerbitzu horretara erregularitasunez joaten zela ziurtatzen zuena. Dokumentu horrek, nolabait, Donostian zegoela frogatzen zuen. Gabonera ziurtagiria bidali genuen eta, nola ez!, beste dokumentu bat eskatzen ziguten. Pasaportea lapurtu edo galdu izanaren frogaren bat behar zuten, edo, beste era batera esanda, polizia-atestatu bat egin behar zen,

galeragatik edo lapurretagatik salaketa berresteko. Laburbilduz: legez existitzen ez zen tipo batek uniformedun agente bat konbentzitu behar zuen bere existentzia bermatzen zuen dokumentua lapurtua izan zela esanez. Gauzak gero eta itxura “hobea” hartzen zuen.

Hirian daukagun komisarietako batera joan ginen. Elkarrizketa benetan interesgarria izan zen:

- **Eta nik nola jakin dezaket pasaportea galdu egin duela?** - galdetzen zuen agenteak, mesfidati
- **Kontxo, esaten ari zaizulako** – nahiko ongi erantzun nion.
- **Baina ez dut frogarik.**
- **Ulertuko duzunez, guk ere ez.**

Bururatu zitzaidan froga bakarra izan zen lehen berak bazuela pasaportea, eta orain ez. Nahiz eta logika borobilez jantzitako esaldia izan, berehala baztertu nuen burutik bere kutsu ‘barriosesameroa’ zela eta. Izan ere, ez zuen ematen gizon hura txantxetarako zegoenik.

Bisiguen arteko elkarrizketa horren ondoren, beste segurtasun-indar batzuen polizia-etxera bidali gintuzten, agentearen hitzetan, kasu horietan eskumen handiagoak zituztelako. Argi zegoen ez zeudela laguntzeko prest eta Blanchardena ez zela polizia haiei iritsi zitzaien izaera horretako lehen kasua.

Bigarren polizia-etxean, azalpenak eman eta atestatu bat eskatu ondoren, hirugarren polizia-etxe batera

bidali gintuzten. Hirian zehar errones gisa ibili eta gero, hirugarren polizia-egoitzara iritsi ginen. Bertara sartu ondoren, agente batek adeitasunez hartu gintuen. Hark ez zuen inolako arazorik planteatu, Blanchard eta nire artean modu koordinatuan adierazten genizkion datuak biltzen zituen atestatua betetzeko. Polizia hau ere ez zen tontoa, baina ziur aski egoera ezagutzen zuen dagoeneko eta bere hondar-alea jarri nahi izan zuen kasu honetan.

Dokumentu guztiak bildu genituenean, izen amaigabeko Gabongo erakundera bidali genituen, baina arazo berriak sortu ziren; argazkia ilunegia zegoen, formularioa ez zen behar bezala bete, kopiek ez zuten eskatzen zen gutxieneko kalitatea, jaiotza-agiriaren kopia irakurtezina zen, egoitza-ziurtagiria ez zen baliozkoa... edozein aitzakia baliagarria zitzaien gure asmo oneko eskaera baztertzeko. Eta hori, posta elektronikoz azaldu genien modura, eskaera egiten zuena larri zebilen gabondarra izanik ere.

Azkenean, hainbat gestioaren ondoren, dokumentazioa onartu zuten eta handik aste batzuetara, pasaporte prest zegoela eta baimendutako edonork jaso zezakeela jakinarazi ziguten. Jakina, horretarako beste paper bat bete beharra zegoen: baimendutako pertsona batek behar bezala egindako pasaporte berreskuratzeko ziurtagiria.

- **J'ai un ami qui peut récupérer mon passeport.** (Nire pasaporte jaso dezakeen lagun bat daukat.)

Konfiantzazko lagun bat. Interesgarria. Baina handik egun gutxira, lagun horixe bera, zalantzak eta arazoak helarazten hasi zen mezu bitartez: baietz, ezetz, ordaindu egin behar dela, ezin dela bidali, benetan bidal daitekeela, baina ordaindu egin behar dela...

Koktel bat imajinatu nuen, adiskidetasuna eta dirua osagai gisa zituena. Adiskidetasun kontzeptuaren erlatibotasuna nenbilkien buruan, adiskidetasuna bera aztertzen nuen, adiskidetasuna maitasun pertsonal desinteresatu gisa ikusten nuen, diruak baldintzatutako adiskidetasunaz teorizatzen nuen, baina, batez ere, pasaportea noiz arraio iritsiko zen galdetzen nion neure buruari

2021eko martxoan, etiketaz betetako gutun-azal bat iritsi zen etxera eta bere barruan hainbeste ahalegin, kudeaketa eta kezkaren saria zuena. Pasaporte berria. Blanchardek kartazala ireki eta dokumentuari begiratu zion hunkiturik, esanaz:

- **Je ne suis plus un objet, je ne suis plus un arbre, je suis maintenant une personne.** (Ez naiz objektua, ez naiz zuhaitza, orain pertsona bat naiz.)

Hainbeste hilabeteren ondoren esku artean zeukan, izaki biziduna zela eta munduko leku batekoa zela ziurtatzen zuen papertxo.

Zuhaitza. Zuhaitza esan zuen. Zuhaitz batean pentsatzen oheratu nintzen, nahiz eta bakar batekin ere ametsik egin ez. Biharamunean argi izan nuen zergatik, inolako baimenik gabe, hitz hori nire buruan behin eta berriro sartzen zen. Noski. Zuhaitza.

- **Blanchard, tú ya no árbol, pero yo árbol en casa** (Blanchard, zu jada ez zuhaitza, baina ni zuhaitza etxean)– esan nion. Harritu egin nintzen neure burua Tarzanen antzera hitz egiten entzun nuenean, agian horrela hobeto ulertzen ninduela pentsatuz.
- **¿Y?** (Eta?) – galdetu zuen
- **J'ai un arbre chez moi que je voulais abattre depuis longtemps. Peut-être que tu peux m'aider.** (Aspalditik kendu nahi dudana zuhaitz bat daukat etxean. Agian lagunduko didazu.)
- **Bien sûr, j'irai demain à neuf heures du matin.** (Bai horixe. Bihar goizeko bederatzieta joango naiz.)

Gabongo zuhaitz erraldoiez hitz egin zidan, 60 metroko altueraraino iristen den *kevazingoaz*, bere herrialdeko baso zabalez eta enbor izugarri haiek mozteko erabiltzen ziren teknika ezberdinez. Zertaz ari zen bazekiela iruditu zitzaidan.

Hurrengo egunean, etxean agertu zen lanari ekiteko gogoz, eta bitxia bada ere, agindutako orduan gainera. Zuhaitz hark bonsai bat zirudien, bezperan deskribatu zizkidanekin alderatzen badugu. Motozerra erabiliz,

zuhaitza egur puskatan eta metro bateko enbor batean bihurtu zen ordu pare batean. Lanaren zati erraza bukatuta genuen, baina behin eta berriz esaten zidan sustraiak lurpetik atera behar genituela, eta hori beste kontu bat da.

Aitzur pare bat atera nituen, urteetan lurrari atxiki zitzaizkion zuhaitz haren sustraiak lur-azalera ateratzeko lan nekeza hasteko. Hitzik esan gabe, lanabesetako bat hartu eta, buruaren gainetik altxatu ondoren, erraztasun osoz sartu zuen altzairua lurrean. Bigarren aitzurra nire eskuen artean zegoen eta nire lagunak eskaini zuen ikuskizunaz gozatu ondoren, ez nekien benetan zer egin harekin. Lan gogorra hura, ilundu zuen arte txantxa eta mota guztietako elkarrizketen arteko esperientzia entretenigarri bihurtu zena.

- **Tú eres un flojo** (Makala zara zu)- behin eta berriz esaten zidan. "Flojo" hitzak atentzioa deitu zion elkarrizketa batean entzun zuen lehen aldian, eta sarritan erabiltzen zuen nire gaitasun fisikoei buruz hitz egiteko. Eta noski, bere sendotasun fisikoa nirearekin alderatzea Gabongo zuhaitzak nik etxean nuenarekin aurrez aurre jartzea bezalakoxea zen.

Kapitulua burokraziari buruzko hausnarketa labur batekin amaitu nahi nuke. Sinestezina da zenbat inprimaki, ziurtagiri, dokumentu, epe, adostasun edo sinadura behar diren administrazioarekin edozein izapide egiteko, izan administrazio hori zure herrialdekoa edo izan beste batekoa. Eta aztertzen ari garen kasuan, kudeaketa horiek


guztiak bertako edozein herritarrentzat labirinto bat baldin badira, nola bideratuko ditu gure hirira iritsi berri den pertsona batek? Gure hizkuntza ezagutzen ez duenak, legediari buruzko noziorik ez duenak eta telefonorik edo internetik ez duenak?

Inoiz irakurri izan dut burokraziaren botereak profanoentzat eskuraezinak diren ezagutzak edukitzean datzala, helburua guztion eskura egon ez dadin. Eta nire adiskidearekin izandako esperientziaren ondoren, noizbait pentsatu dut engranaje administratiboak agian eskatzailea uxatu egin nahi duela, traba eta oztopo zailez gainezka egin dezan eta, horrela, bere eskubideetatik urrundu.

Uste dut pixkanaka-pixkanaka hiru buruko herensuge bat sortu dugula, nonahikoa, konplexua eta tamaina itzela duena, hazten eta berrelikatzen dena, eta bere etengabeko hedapenean gure bizitzako ia eremu guztietan harrapatzen gaituena.

13. Kapitula

22-03



Martxoko edozein larunbatetan eta eguneko ordu nagusietan, Astigarragako herria eromena da. Bertako tabernetan jende andana biltzen da festarako gogoz eta biharamunik ez balego bezala jokatu. Herriko eta inguruko edozein sagardotegitan hasten den benetako festaren atarikoak dira. Larunbat horietako batean, nire lagunari herrira bisita espres bat egitea proposatu nion, egun seinalatu horietan arnasten den giroa ezagutu zezan. Nire azalpen apurrak aski izan ziren Blanchard konbentzitzeko, baietz erantzun baitzuen berehala.

Astigarragara iritsi eta autoa justu xamar aparkatu ondoren, bi garagardo hotz eskatu nituen tabernarik

jendetsuenean. Berehala ikusi nuen nire lagunak "taberna eta giro ona" irakasgaia landua zuela, botilatxo eskuan zuela nola moldatzen zen ikusita. Bere begien aurrean ikusten zuena sinestezina iruditzen zitzaion. Jendeak abestu egiten zuen, barre egin, kalean bere tragoa hartu, eta uste dut tipoari asko gustatu zitzaiola esperientzia. Bere harridura aurpegia ikusita, hurrengo bisita sagardotegi batera izango zela agindu nion une hartan Astigarragan egosten ari zenaz kontzienteagoa izan zedin. Nire hitza bete nuen egunean ederki ulertu zuen hori guztia!

Giroaz gozatzen ari ginela, lagun bat hurbildu zitzaigun agurtzera. Solasean hasi ginen eta Blanchard aurkezten ez niola ikusita, aurea hartzea erabaki zuen eta irribarretsu esan zion:

- **Hola, yo soy Blanca.** (Kaixo, ni Blanca naiz.)

Ixiltasun une bat egin zen. Blanchardek erantzuna bazuela iruditu zitzaidan, eta, segundo batzuen ondoren hauxe bota zuen:

- **Hola, yo negro** (Kaixo, ni beltza.)

Isilune deseroso baten ondoren barreak hasi ziren. Nire lagunak ez zuen uste inork Blanca izena izan zezakeenik. Emakume askok Blanca, Edurne, Nieves edo Zuriñe izena zutela esan nion, Gasteizko zaindari Andre Maria Zuriaren omenez. Azalpenen ondoren, barre egin genuen denok, egoera hura eragin zuen esaldiak errepikatzen genituen bitartean. Noizean behin gogoratzen

nion pasadizoa, aitortu beharra daukat, benetan barregarria iruditu zitzaidalako. Gertatu zena argitzen zuen aldiro:

- **Claro, si ella me dice “yo estoy blanca” yo le digo “yo estoy negro”.** (Noski, berak "ni zuri nago" esaten badit, nik "ni beltz nago" esaten diot.)

Asko gustatzen zitzaidan “izan” aditza beharrean “egon” aditza erabiltzen zuenean. Eta maiz egiten zuen hori, izan ere, beste hizkuntza latindar batzuetan ez bezala, hala nola espainieraz (ser/estar), italieraz (essere/stare) edo portugezaz (ser/estar), frantsesez "être" baino ez da erabiltzen bi kontzeptu horiek adierazteko. Hortik zetorkion seguruenik aditza aldatzeko joera.

Bide batez, deigarria egiten zitzaidan Blanchardek bere buruaz hitz egitean beltza hitzaren erabileran zuen naturaltasuna. Askotan txantxetan esaten zuen “pata negra” duen euskalduna zela.

Behin baino gehiagotan hitz egin genuen horretaz. Nire ezjakintasunetik, arazoa trabatu egiten zitzaidala esaten nion. Maiz entzun eta erabili izan dut "koloredun pertsona" esamoldea. Hala ere, esaera osatugabea iruditzen zait hori, ez baitu garbi definitzen pertsona horren tonalitatea, eta, gainera, beti galdetu izan diot neure buruari ea gainerako hilkorrek gardenak ote garen. "Afroamerikar" hitza ere entzun dut, baina kasu askotan afrikarrak eta amerikarrak ez diren pertsonentzat erabiltzen da, eta hori xelebre xamarra dela esango nuke.

"Afrikarren ondorengoa" hitza zuzenagoa iruditzen zait, baina baita korapilatsuegia ere.

Nire lagunak esan zidan Estatu Batuetan hip-hop letra askotan agertzen den "nigger-nigga" hitza esklabutza-erara delako eta kutsu arrazista duela. Horren zeinaren gaztelaniazko itzulpena "negrata" izango litzateke. Hala ere, hitza iraingarria iruditzen zitzaion ala ez galdetzerakoan, testuinguruaren, tonuaren edota erabilitako intentzioaren arabera zela zioen.

Gaiari buelta batzuk eman ondoren, uste dut Blanchard bezalako pertsona bat aipatzeko "pertsona beltza" esamoldea erabiliko dudala, izan ere, honela, "beltza" hitzarekin ez bezala, fokua pertsona izatean jartzen da. Izenondoak pertsona hori kalifikatzen du eta informazio osagarria ematen du. Hurrengo paragrafoan praktikan jarriko dut termino hori.

Gogoratu berri dut azken urteotan gurekin bizi izan den "pertsona beltzaren" beste pasadizo bat. Baina, kontaktarekin hasteko, irrati tertuliakide eta kazetari askok egiten dutena egingo dut. Guztiek erabiltzen dituzte aipuak beren hitzaldien hitzaurre gisa, eta, era berean, prentsako artikuluko asko autore ezagunen aipamenekin apainduta etortzen dira. Eta ni, gutxiago izango ez naizenez, ondorengo aipua bete-betean datorkidala ikusiko duzue.

Ortega y Gassetek zioenez, "Gazteek, a priori, nagusi sentitu behar dute. Oker daude, noski, baina horixe da, hain zuzen ere, gazteen eskubide nagusia".

Udako larunbat bat zen eta lasai ari ginen bazkaltzen, astean zehar gertatutakoaz hitz egiten. Entsalada mistotik oilasko errera pasa ginen unean, nire laguna pilota-jokoaz hitz egiten hasi zen, bera oso ondo aritzen zela tenisean, frontoian behin jokatu zuela, palan jokatzen oso ona zela eta abar eta abar. Irribarrez begiratzen zion aurrean zeukan solaskideari eta adinean bikoizten zion hark, arretaz entzuten zuen esaten ari zen guztia. Ni neu nintzen solaskidea, harrapakinaren zain zegoen lehoi makurtuaren antzera. Gaztea zeruetara nola igotzen zen begira nengoen bitartean, hartuko zuen zartako ikusgarria aurreikusten ari nintzen. Izan ere, nahiz eta adin bat badudan dagoeneko, bizitza osoan zehar aritu eta lehiatu naiz pelotan. Eta nire lagunak ez bezala, frontoi bateko txoko guztiak eta kirol honen zirrikituak ederki ezagutzen ditut.

Bere azken mokadua dastatzen ari zela, halaxe esan nion:


- ***Txabal, termina el pollo que nos vamos a jugar a pala.*** (*Txabal*, amaitu oilaskoa palara jokatzerara goaz-eta.)
- ***¿Pala? Pero yo soy muy bueno y tú eres viejo*** (Pala? Baina ni oso ona naiz eta zu berriz, zaharra)
 - nirekin sartzeko garaian gaztelania maisuki ahoskatzen zuen.

Urte batzuk neramatzan frontoian jokatu gabe sistema osteomuskularraren lesio ugarien ondorioz (ohartuko zinen horrela esanda zaintiratuek beste dimentsio bat hartzen dutela). Nire gaitasun fisikoak ez ziren duela urte batzuetakoak, baina lehiakortasun grina galdu gabe neukan, nire kirol-bizitzan bidelagun izan dudana irabazteko gogo hori, alegia.

Frontoira iritsi ginen eta beroaldi labur baten ondoren partida hasi zen. Irabaztera atera nintzen eta nire adiskidea berriz alde batetik bestera zebilen, eskura zituen baliabide guztiak erabiliz, baina egia esan, arrakasta handirik gabe. 15 minutuko partidaren ondoren, eta aipatzeko moduko gorabehera kaltegarriarik gabe, borroka irabazi nion. Agian partidaren emaitzari buruz galdetzen ariko zara. Gustura esango nizuke, baina ezin dut. "Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari" buruzko 2018ko abenduaren 5eko Lege Organikoa bete behar dut, zalantzarik gabe. Edonola ere, sekretu bat kontatuko dizut. Kapitulu honetako leku diskreturen batean erraz aurki dezakezu tanteoa. Modu horretan, zuk aurki dezakezu nik ezer esan gabe eta hori, dirudienez, ez da bekatua.

14. Kapitula

IKASTEN EDO LANEAN?



Blanchard Loiolan bizi zen bitartean, dirua guretzat arazo bat izan zitekeela ikusarazi nion, eta bere kolorea zuen lan batekin dirua irabazten saiatu behar zuela adierazi nion, bere egoeran, ezinezkoa izango baitzuen beste tonalitate bateko lanik lortzea.

Goizero Hernanira zihoan bidea jarraitzen zuen, lana aurkitzeko itxaropenez, baserri eta sagardotegietan galdezka, baina arrakasta handirik gabe. Egun batean norabidea aldatu eta Añorgatik gertu dagoen auzo berri batean azaldu zen. Familia bakarreko etxeak eraikitzen ari ziren lur haietan. Amaitu gabeko kaleetatik paseatzen ari zela, tipo bat ikusi zuen, eraiki berria zirudien etxebizitza baten sarreran eserita. Hurbildu eta galdetu zion ea berak

egiteko moduko lanik ba ote zuen. Galdera jaso zuenak nire lagunari begiratu eta une labur batzuk igaro ondoren, baietz esan zion. Izan ere, amaitutzat eman zuten etxebizitza bat zen, baina garbiketa sakona behar zuen obren ondoren. Horixe zen lana, hondakinak kentzea eta garbitzea.

- **Tú no sabes Manu, estoy muy cansado** (Zuk Manu ez dakizu, neka-neka eginda nago) – esan zidan etxera iristean.
- **¿Cansado un tío joven como tú?** (Zu bezalako tipo gazte bat nekatuta?) – esan nion txantxetan.
- **J'ai travaillé dans une maison.** (Etxe batean aritu naiz lanean.)
- **Très bien. Votre premier emploi!** (Oso ongi! Zure lehen enplegua!)
- **J'ai nettoyé toute la maison. C'était plein de ciment, de terre, de sacs remplis de pierres et de briques. J'ai commencé à dix heures du matin et j'ai terminé à sept heures. J'ai mal aux bras et au dos.** (Zementuz eta lurrez gainezka zegoen etxe bat garbitu dut. harriz eta adreiluz betetako zakuz josita zegoen, gainera. Goizeko 10etan hasi eta zazpietan bukatu dut. Besoak eta bizkarra minduta dauzkat.)
- **Il a dû bien te payer...** (Ondo ordainduko zizun...)
- **Il m'a donné 20 euros.** (20 euro eman dizkit.)

Nire lagunaren kontakizunaren ondoren, gertatutakoaren errealitatearekin nahiko bat zetorren

istorioa irudikatu nuen. Goizeko hamarrek ziren. Etxeko atarian zegoen tipoak etxea garbitu behar zuen. Atean eserita zegoen zigarro bat erretzen, aurretik zeukan egun gogorra imajinatuz. Eta halako batean, pertsona gazte eta indartsu bat agertzen da berarentzat lanik ba ote duen galdezka. Erretzaileak berehala imajinatu zuen paperik eta eskubiderik gabeko pertsona bat zela, ezer galtzerik ez zuena eta ekarpen handia egin zezakeena -Lana ba ote dudan? -pentsatu zuen-. Oraintxe bertan daukadan gauza bakarra horixe da, gogoa berriz, lanerako gogoa deritzona, bat ere ez. Bere begien aurrean zeukan lanegun desatsegin horrentzat konponbide perfektua. Susmoa dut aurpegia erabat aldatu zitzaiola eta "bai, badut" erantzun ostean, egin beharreko lanak azaltzeari ekin ziola.

- **Mais entre deux le travail aura été plus facile** (Baina biren artean lana errazagoa izango zen) - esan nion, bere neke sentsazioa erlatibizatzen saiatuz.
- **Non, j'ai travaillé seul. L'autre homme a regardé et m'a dit quoi faire.** (Ez. Bakarrik lan egin dut. Besteak begiratu egiten zuen eta zer egin behar nuen esaten zidan.)

Ziurrenik ez zen gure lagunak amestutako lan estreinaldia izan, baina 20 euro lortu zituen, lana amaitzean tipo hark hitzik esan gabe eman zizkionak. Gutxi zela? Lana amaituta zegoen eta Blanchard ez zegoen bere ordezkari sindikalarekin biltzeko moduan soldata duinen aldeko manifestazio bat antolatzeko. Izan ere, seguru asko tipo hura ez zen enpresaria. Zalantzarik gabe, lan-baldintza

duinak edo ez hain duinak zituen soldatapeko bat zen, eta eskubiderik ez zuen pertsona baten egoeraz baliatu zen.

Gau hartan lanaldiei, soldatei, lan-baldintzei, lan-baimenei eta enplegu prekarioari buruz hitz egin genuen. Baina benetan prekarioa zena, bere egoera fisikoa zen. Horregatik, ohiko "ondoloin" agurraren ondoren, amaitutzat eman genuen telefono bidezko elkarrizketa.

Egoera bitxia zen. Alde batetik, gazte bat, hirian integratzeko eta erregularitasunez lan egiteko gogoia zuena, lan-merkatuan sartzea eragozten zion legearen harresi ikaragarriaren aurrean. Eta, beste alde batetik, prentsak behin eta berriz aipatzen dituen eskulanaren eskasia eraikuntzan, ostalaritzan, iturgintzan, elektrizitatean edo adinekoen zaintzan. Lan egiteko, beharrezkoa da lan-baimena izatea, eta horrek, aldi berean, egoitza-baimena eskatzen du; eta baimen hori eskuratzeko, halaber, gutxienez hiru urtez erroldatua egotea beharrezkoa da. Beraz, kasu honetan, beste zenbaitetan bezala, modu legalean lan egiteko aukera oso urrun zegoen.

Blanchardek atsegin zuen paseatzea. Batzuetan, Infernuko bere lehengo etxebizitzara hurbiltzen zen, eta bestetan Ametzagaina parkean paseatzen zuen. Donostiako alde zaharrera joatea ere gustukoa zuen. Han, Saharaz hegoaldeko zenbait pertsona ezagutu zituen, Konstituzio plazako arkuen azpian lo egiten zutenak. Bizi-baldintzei eta egoerari buruz hitz egiten zuen haiekin behin baino gehiagotan. Haietako askok urteak zeramatzatela hirian esaten zigun, baina ardoak ito egiten zuela integratziorako

edo lanerako eduki zezaketen interes eskasa. Pare bat aldiz "fufua" prestatu zuen arkupeetako bizilagunentzat. Fufua jatorriz Ghanakoa dela azaldu zidan, eta almidoi eduki handia duten jukazko tuberkuluak nahastuz egiten dela. Dirudienez, sustraiak egosi ondoren, egurrezko katilu batean ehotzen dira, testura trinko eta itsaskorra lortu arte.

Internetera jo nuen jaki horri buruz informazioa lortzeko asmoz, eta ikusi nuen itxura oneko masa zuri bat zela, zopa eta saltsekin konbinatzen dena. Gaur egun hautsetan saltzen dela egiaztatu nuen eta ur beroarekin nahastuta, masa hori lortzen dela. Agian egunen batean probatzera animatuko naiz.

Behin baino gehiagotan, hiriko kaleetan egiten zituen txangoetan jasotzen zituen eskaintzei buruz hitz egin zidan. Sexuarekin lotutako proposamen ugari egiten zizkieten, adin, genero eta baldintza guztietako pertsonek. Nire lagunak, itxura atsegin eta bereziki exotikoa zuen eta nonbait, bere zerbitzuengatik ordaintzeko prest zeuden pertsona askoren arreta erakartzen zuen. Bere ezagunen bat negozio horretan modu profesionalean aritzen zela esan izan zidan eta baita, etekin handiak lortzen zituela ere.

Drogen munduari lotutako proposamenak ere jaso zituen. Izan ere, nire laguna hizkuntzetan trebetasun handiko tipoa zen (frantsesa, ingelesa, gaztelania `makarronikoa´ eta arabiera pixka bat zekizkien) eta, gainera, jendetasun handia zuen. Profil interesgarria zen alde zaharreko kale kantoietan jartzen ziren tipoentzat, nahiago baitzuten beste batek bere gain arriskuak hartzea.

Bere kontakizunek gordintasun osoz orain arte ezagutzen ez nuen azpimundu bat ikusarazi zidaten. Egia da aspaldidanik nagoela deskonektatua eta zirkulaziotik kanpo; beraz, ez ditut ezagutzen gaur egungo gaueko bizitzaren gako asko, baina...

Gai horiei buruz ari ginen hitz egiten Astigarragatik Donostiarantz oinez gindoazela. Martuteneko kartzelaren aurretik pasatzen ari ginela, zera galdetu zidan:

- **¿Qué es esto?** (Hau zer da?)
- **La cárcel**, – erantzun nion - **un sitio al que se entra fácilmente, pero del que difícilmente se sale.** (Kartzela, erraz sar zaitzaketen lekua, baina bertatik ateratzen kostako zaizuna.)

Sarritan gogoratzen zuen esaldi hura, eta halaxe jakinarazten zidan. Bazekien, bere egoeran, jarduera batzuk irabazi handikoak izan zitezkeela, baina bazekien baita ere edozein akats oso garestia izan zitekeela.

2021eko martxoan Donostian erroldatu zen, lortzea hainbeste kosta zitzaion pasaporteari esker. Dokumentua eta errolda-agiria eskuan genituela, aukera berriak zabaldu ziren hirian gure lagunarentzat, hala nola Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzuan) izena emateko aukera ematen zuena. Ez zen enplegu-eskatzaile izatera pasatzen, ezin zuelako lanik egin, baina prestakuntza-ikastaroak egin zitzakeen eta oso interesgarriak izan zitezkeen lan-baimena eskuratzen zuen egunerako.

Elkarrekin irakurri genuen eskura genituen ikasketen zerrenda luzea. Hasierako zalantzen ondoren, "Eraikinetako instalazio elektroteknikoak eta telekomunikazio-instalazioak muntatzeko eragiketa osagarriak" izeneko ikasketa aukeratu zuen. Ikastaroaren izenaren luzera ikusita, interesgarria zirudien. Hiru hilabeteko bi modulu ziren eta arlo horretako enpresa batean praktikak eginez amaitzen ziren ikasketak.

Elektrizitateari buruzko ezagutzak zituela esan zidan, baina ikastaroa baliagarria izango zitzaiola bere trebetasunak hobetzeko. Hasieran, positiboki harritu ninduen bere baieztapen horrek, baina denborarekin, apur bat ezagutu dut. Izan ere, ia elkarriketa guztietan harrotzen zen edozein lanbide edo ogibideri buruzko bere jakintzaz. "Bizitzaren ingeniaria naiz", esaten zidan maiz.

Zenbaitetan bere baieztapenak zuzenak zirela ikusi nuen, ondo moldatzen zela lorezaintzan, mekanikan edo brikolajeen. Baina zalantza gehiago sortzen zitzaizkidan, osasun-langile papera hartuta, Covid-a limoiarekin eta baratxuriarekin senda zezakeela esaten zuenean ('tipoak' dosi bat hartzen zuen goizero). Zalantzak nituen musika munduan urrun irits zitekeela esaten zuenean edo palan oso ona zela adierazten zuenean ere. Edozein kasutan, ilusioz beterik zegoen bere egoera berrian. Bazekien, lan egiteko ordua iristean, ikasketak oso lagungarriak izango zitzaizkiola.

2021eko urrian elektrizitate ikastaroa hasi zuen. Zirkuituz eta teorian betetako liburua eramaten zuen gainean egunero. Gure elkarrizketetan erreleen, etengailu sinple eta bikoitzen, konmutadoreen, korronte bipolarreko hartuneen edo koadro orokorraren funtzionamenduak azaltzen zizkidan. Egia esan, bakarrizketak ziren, batez ere, nik ezin niolako elkarrizketari ekarpen handirik egin. Kablez, bonbillaz eta mota guztietako etengailuz betetako egurrezko oinarriak bidaltzen zizkidan egunero bideoan grabatuta. Uste dut erakutsi nahi zigula lanbidearekiko zuen interesa, lanerako zuen grina eta, jakina, bera zein trebea zen kableen mundu konplexu hartan.

- **Vas a ver tú lo bueno que soy yo** (Ikusiko duzu zein ona naizen) - zioen pozik, argiak piztu eta txirrinak jotzen zituen miraria eragiten zuen etengailu bat sakatu aurretik.

Klaseak amaitu eta azken azterketa gainditu zuen, baina ikastaroa amaitzeko elektrizitate enpresa batean praktikak egin behar zituen. Hilabete oso batez, ustez oso gustuko zuen lanbide batean lan egin zuen, eta elektrizitatean profesionalki aritzen ziren pertsonak ezagutzeko aukera izan zuen. Hilabete gogorra izan zen, lanaldi luzeekin, agian luzeegiekin. Kontatzen zuenez, batzuetan bere lanaldiak ez ziren gehiegi gainbegiratzen, praktiketako ikaslea zela kontuan hartuta.

2022ko urtarrilean, enpresako praktikak amaitu baino pixka bat lehenago, tipo bat hurbildu zitzaion adiskidetasunez. Berari buruzko erreferentzia oso onak

zituela esan zion, eta beharbada elektrizista gisa bere enpresan lan bat eskain ziezaiokeela adierazi zion. Blanchardek ezin zuen sinetsi. Ilusioz deitu zidan, ordaindutako lan aukeraren aurreikuspenarekin. Aukera interesgarria zirudien. Behin baino gehiagotan irakurrita neukan zenbait lanpostutarako profesionalik ez zegoela, eta baita elektrizitatearen inguruko lanbideen eskasia nabaria zela ere.

Hurrengo egunean “txispasarekin” geratu zen, balizko lan-akordioaren xehetasunei buruz hitz egiteko.

- ***Txabal, ¿qué me cuentas? ¿Has hablado con el tío ese?*** (Motel, zer diozu? Tipo horrekin hitz egin al duzu?) - Telefonoz galdetu nion hurrengo egunean, goiz osoa haren berririk gabe itxaron ondoren. Bere ilusioa nirea zen. Nire lagunarentzat lan bat espero nuen, gure artean eroso sentiaraziko zuen lan bat, bere autoestimua hobetuko zuen konpromiso bat eta autosufizientea izateko aukera emango zion soldata bat.
- ***He hablado pero muy poco. Ha hablado él y luego me he marchado*** (Hitz egin dut, baina oso gutxi. Berak hitz egin du eta gero alde egin dut) - erantzun zuen atsekabeturik.
- ***¿Cómo? ¿Que te has largado?*** (Nola? Ospa egin duzula?)
- ***Il voulait que je travaille pour 7 euros*** (7 euroren truke lan egitea nahi zuen.) – erantzun zidan.

Kalkulu azkar bat egin nuen, batuketa horrek hilean zer suposatuko ote zuen jakiteko. Beno, hain azkar ere ez zela izan aitortu behar dut. Zazpi euro orduko, bider zortzi ordu, 56 euro eguneko eta hogeitun lanegun hileko 1120 euro inguru izan litezke. Ez zen notario-soldata bat, baina gure lagunak bere etorkizuna beste modu batera ikusteko balio zezakeen eta, bide batez, gure familia-ekonomia neurri batean arindu zezakeen.

- **Pero ¿que te has largado, así como así? Eso supone, aproximadamente, 1200 euros al mes** (Baina, alde egin duzula? Hori, gutxi gorabehera hilean 1200 euro dira) – esan nion bere jarrera ulertu gabe.
- **Noooo!!, son siete eros al día.** (Eeezzz!., Zazpi `ero´ egunean dira.). "U" letra kentzen zion "euro" hitzari, eta "e" hitzak soinu berezia hartzen zuen. Seguru asko frantsesek Europako monetaz eta "eu" bokalek dituzten hitz ugarietz egiten duten ahoskeragatik irensten zuen bokala. Interneten irakurri berri dut, sarean zehar egindako beste bilaketa liluragarri batean, frantsesezko "eu" soinua, [Ø] bezala irudikatzen dena, ezpainak aurrerantz luzatuta ahoskatzen dela, urtebetetze tarta bateko kandlei putz egiteko bezala. Hor utziko dut, norbaitek probatu nahi badu.
- **¿Siete euros al día?, no puede ser, eso es imposible. No le has entendido bien. Eso son ciento cuarenta euros al mes por un trabajo de 8 horas al día** (Zazpi euro egunean? Ezinezkoa

da. Ez diozu ondo ulertu. Hori hilean ehun eta berrogei euro dira egunean 8 orduz lan egiteagatik) -esan nion harrituta eta urtebetetze kandelarik putz egin gabe.

- **Oui, je lui ai demandé trois fois. Il m'a dit que c'était ce qu'il pouvait me payer, 7 euros par jour.** (Bai, hiru bider galdetu diot. Ordaindu dezakeena dela esan dit, 7 euro egunean.)

Beste behin ere, norbait gure lagunaren egoeraz baliatzen saiatzen ari zen. Beste edozein langile bat bezala lan eginaraziko zioten, kasurik onenean, eta miseria bat ordainduko. Arratsalde hartan berriro ekin genion enplegu prekarioari eta giza egoerari buruzko elkarrizketari. Balio gutxiko ideia filosofikoen truke zabal baten ondoren, ondorioztatu genuen ez zuela onartu behar lan-esplotazioan oinarritutako enplegurik. Argiketari maltzurak egindakoa adibide ona zen.

2022ko maiatzean, lagun baten gomendioari esker, lorezain hasi zen lanean Irungo etxebizitza familiabakar batean. Lan hori pozgarria izan zen berarentzat, eta aire zabalean lan egiteko eta hain gogoko zuen naturarekin harremanetan egoteko aukera eman zion. Gainera, soldata duina jasotzen zuen, eta hainbat hilabetez baliagarri eta baloratua sentitzen lagundu ziola esango nuke.

Irunen, pasaportea kudeatzeko Parisera egindako bidaian, jendarmeeek atxilotu zuten mugarekin topo egin zuen berriro. Ausartuko nintzateke esatera behin baino gehiagotan hausnartu zuela muga baten esanahiaz, askotan

lerro birtuala baina iraganezina, beraren antzera, hura
gurutzatzeko eskubiderik ez zutenentzat.

15. Kapitula

IBOGA



Blanchardek maiz hitz egiten zigun bere herrialdeaz: animalia basatiak, paisaia liluragarriak, oihanak eta, oro har, natura bete-betean. Antzinako errituak eta sinismenak deskribatzen zituen, eta gorantz etortzen zenean, sirenak ikusi zituela ere ziurtatzen zuen. Normalean, bere solasaldia algara batekin amaitzen zen, bere tarte libreetan zer hartzen zuen galdetzen nionean.

Baina egun batean, nire galdera errepikariari erantzunez, "iboga"-ri buruz hitz egin zidan. Zuhaixka baten sustraiekin egiten zen edari bat zela kontatu zidan, bwiti izeneko erritu batean edaten zena. Ibogak "espirituen munduarekin" hitz egiteko aukera ematen zuela zioen, eta gorputzaren eta arimaren gaitzak sendatzeko ere erabiltzen omen zen. Ziurtatu zidan beti izan zuela nolabaiteko mesfidantza substantziarekiko eta beraz, ez zuela inoiz

parte hartu inimizio-erritu horietako batean. Baina esperientzia hori izandako jende asko ezagutzen omen zuen, denak hala denak, zeremonia-maisuaren ezinbesteko laguntzarekin aritutakoak bera baitzen trantze horietako batean gauzak okertzen baziren erreskatatu ahal izango zituen bakarra. Edo horrelako zerbait.

- **Manu, si tu toma eso vas a ver tu vida, de antes de lejos, de ahora y de luego** (Manu, zuk hori hartzen baduzu, zure bizitza ikusiko duzu, garai batekoa urrutitik, oraingoa eta ondorengoa) - iragana, oraina eta etorkizuna ikusiko dituzula, esan nahiko zuen, diot nik.
- **Ya** (Bai) – erantzun nion, apur bat burlaka.
- **Tú vas a haber un keler 1000 veses** (Zuk keler bat 1000 bider ikusiko duzu) -imajinatzen dut esan nahiko zuela, 1000 Keler botilatxo hartzean sentitzen dena sentituko nukeela. Batzuetan, frantsesez hitz egitea hobe zela pentsatzen nuen, nahiz eta bere gaztelania hasi berriak, bere puntutxoa ere bazuen.

Bere kontakizunak entzuten nituen bitartean, antzinako errituak imajinatzen nituen, substantzia magikoak, herri txiki bateko jendea oihan hostotsu baten erdian aurpegia zuriz margoturik dantzan eta danbor baten erritmoan jauzi eginez su baten inguruan, sorginkeriadun esaldi ulertezinak esaten... Eta konturatu nintzen nire burura iristen ziren irudi horiek umetan ikusten genituen Tarzanen filmetatik zetoze.

Internetera jo nuen ibogarekin zerikusia zuten errituen berri izateko eta, bitxia bada ere, ikusi nituen argazkiek nire pentsamenduetan zebiltzan irudiekin antz handia zutela. Atentzio handiz ohartu nintzen bwitia oso praktika hedatua zela Gabonen eta mendebaldeko pertsona asko hori egitera joaten zela. (-Asta los blankos - idatzi zidan behin whatsapp bidez). Eta egiaztatu nuen zuhaixka horren sustraiak bazuela substantzia psikotropiko indartsu bat. Orduan ulertu nuen hartzen duenak Pilarreko Andre Mariaren basilika ere ikus zezakeela, Zaragoza ezagutu gabe.

Erritual horiek, beren sinesmen zaharkituekin bat zetozenak, oraindik garatu gabe zeuden herriei zegozkiela pentsatu nuen. Jakina, horrelako zeremonialek ezin izango lukete lekuri izan gurea bezalako lurralde moderno eta aurreratu batean. Europan, Ilustrazioak ezagutzaren eta arrazoiaren argien bidez gizadiaren ergelkeriaren eta sinpletasunaren iluntasuna uxatzea lortu zuen, eta ezjakintasuna eta sineskeria agerian utzi zituen. Zientziak eta ezagutzak zibilizazioaren gailurrean jarri gintuzten. Eta gu Europan bizi gara, 'supertxeria' anakroniko hori guztia alde batera utzita. Ilustrazioari eta iluntasunari buruzko konturik ez nion azaldu, arrazoiaren pisu astunarekin bera hitzik gabe ez uztearren.

Lagun bat daukat Blanchardekin hasieratik inplikatu dena. Bere egun libreak aprobetxatzen zituen, dextente direnak bide batez, berarekin hainbat jarduera egiteko. Biei gustatzen zitzairen mendian paseatzea eta pixkanaka-pixkanaka gure geografiako leku interesgarri

askotan ibili ziren. Egun horietako batean, Blanchardek Iturriotzetik Herniora igoko zirela esanez idatzi zidan. Bide batez esan nion oso mendi berezia zela, ikuspegi ikusgarriak zituen norabide guztietan. Mendiaren magaleko zelaietan iraileko igande guztietan erromeriak egiten zirela kontatu nion. Ziurrena interes handirik gabe irakurriko zituen nik bidalitako hainbat azalpen.

Goiz erdian mezu bat iritsi zitzaidan, esanez:

- **Primo, yo vengo al monte y mira lo que yo hago.** (“Primo”, ni mendira nator eta begira zer egiten dudana.)


Jarraian, espero ez nuen bideo bat neukan nire begien aurrean. Hernioko bidean ageri zen, zutik, gurutze handi bat zuela alde batean. Bi eskuekin karratu itxurako burdin pieza bati eusten zion. Burua tramankuluan sartu ondoren, gorputzaren inguruan pasatzen zuen, oinetara iritsi arte. Hiru bat aldiz errepikatu zuen jokaldia, eta aldi berean esan zuen:

- **Primo, esto es bueno para el reuma.** (“Primo”, hau erreumarentzat ona da.)

Antza denez, berarekin joan zen lagunak Hernioko metalezko arkuek gorputz osotik igarotzean artikulazio-arazoetarako eskaintzen zituzten onura terapeutiko eztaba daezinen berri eman zion. Ilustrazioarekin,

arrazoiarekin, argiekin eta ezagutzarekin zerikusia zuten nire gogoetak gogoratu nituen. Eta biziki eskertu nion neure buruari aurreko egunetan nire lagunari ez aipatzea ez ilustrazioarena, ezta ilunarena ere.

PISU BILA



115

batzuetan berriz, kasu honetan gertatzen zen bezala, zuzenean bizilekurik ez zuelako.

Egoera horietarako, hoteleko logelak erabiltzea aurreikusi zen, isolamendu seguruak lortzeko asmoz. Lagun batek, bai, egun libre dezente dituenak, Blanchard gertuen zuen anbulatorioarekin jarri zuen harremanetan, eta beharrezko kudeaketak egin ondoren, Arantzazuko Santutegira eraman zuten. Zehatzago esanda Arantzazuko Santutegiko Hotelera. Hiru izar dituen horretara.

- **-Mais où vas-tu? En ambulance?** (Baina. Nora zoaz? Anbulantzia?) – sinistu ezinik galdetu nion.
- **Oui, ils m'emmènent à Arantzazu.** (Bai. Arantzazura naramate.)

Noski, orain, aurreko paragrafoa irakurri duzunez, Arantzazuko santutegiko hotelera daramatela esango duzu, "COVID-19 pandemiaren deseskalatze-faserako kasuak eta kontaktu estuak zaintzeko eta kontrolatzeko planaren" barruan. Baina une hartan nire galdera egokia zen, izan ere, gogoratzen baduzu, gertaerak azkartu egiten ziren eta erabaki administratiboak eta politikoak egunero aldatzen ziren, baita orduero ere. Bide batez, Covida aipatzen dudan honetan, urrunean geratzen den amets gaizto bat bezala ikusten dut. Amets horretatik ondorio positiborik atera gabe esnatu garela esango nuke, iritzi-emaile askok paradigma sozialaren aldaketa iragartzen bazuten ere.

Tipoak 13 egun eman zituen hoteleko gela batean, Erbizaskun, Bellostegi eta Aitzabal tontorretara begira. Ikusten zituen, baina ezin zituen gozatu, ez baitzitzaion gelatik irteten uzten. Egunero idazten zigun eta bere gela zabalaz harrotzen zen, mendira eta Arantzazu ibaia igarotzen zen arroila sakonera begira. Baina haren gogo moteltzen hasi zen, igarotako denboraren proportzioan.

Denbora betetzen saiatzen zen, testuingurua kontuan hartuta, santuen bizitzei buruzko libururen bat irakurtzen, San Inaziok bere eriondoan egin zuen bezalaxe. Gure vis a vis whatsaperoetako batean oso-osorik abestu zidan abesti bat konposatzeko astia ere izan zuen. Abestian Monikaz hitz egiten zuen, baina ez dut inoiz jakin nor zen bere kanta inspiratu zuen musa. Kantatzen bukatu ondoren neskari buruz galdetu nion, baina frantsesezko eta gaztelerazko hitz eta esaldi ulertezinekin erantzun zidan, esaten ari zitzaidanaren berri izan ez nezan seguruenik. Denboraren poderioz hobetzen joan zen teknika trebea dela esan behar dut.

- **Joder txabal, de una pensión a un Hotel de tres estrellas...estás mejorando tu situación. Pronto al María Cristina** (Joder motel, pentsio batetik hiru izarretako hotel batera...zure egoera hobetzen ari zera. Laster Maria Cristinara) – idatzi nion, solasa zertxobait alaitzeko.
- **¿Quién es María Cristina?** (Nor da Maria Cristina?) – jakin-minez galdetu zidan.

- **Tu no me has dicho quién es Mónica por lo tanto yo no te voy a decir quién es María Cristina** (Zuk, Monica nor den ez didazu esan eta beraz, nik Maria Cristina nor den ez dizut esango) – idatzi nion bere aurrean nabarmendu nahian.

Barre-algaraka hasi zen, bost bat aldiz hortz zuriz eta malkoak begietan dituen egungo emotikono okertua errepikatuz. Konposatu zuen abestia oso erromantikoa eta gogaikarria zen, ia itsaskorra, eta ez zuen batere antzik hainbeste gustatzen zitzaien rap musikarekin. Covid sintoma bat izan zitekeela pentsatzera iritsi nintzen, baina bertan behera utzi nuen, ez bainuen antzeko sintomarik aurkitu nire interneteko bilaketetan.

Arantzazuko lau horma horien arteko esperientziaren ondoren, anbulantzia berriz ere, Donostiara iritsi zen eta, bide batez, errealitate gordinera.

Ez zuen Loiolako pentsiora itzuli nahi. Bere aurreko esperientzia ez zen oso atsegina izan hainbat arrazoiengatik eta beraz, ez zeukan bizilekurik, zituen gauza apurrak utzi eta lasai lo egiteko. Donostian logela bat bilatzeko unea zela pentsatu genuen, eta Blanchard bezala gaua pasatzeko leku duin bat ez duten pertsonei Udalak ematen dien laguntza eskatzekoa. Gela hori lortzen ari ginela, gure etxean jarri zen bizitzen egun batzuetan.

Lagun on batekin hitz egin genuen, eta prest agertu zen bere etxean gela bat eskaintzeko. Blanchard uda osoan han egongo zela adostu genuen eta horrela, gela berri bat lasaitasunez eta denbora nahikoarekin bilatzeko aukera

izango genuen. Hala ere, denborak azkar egiten du aurrera egoera horretan. Uda amaitzen ari zen eta, beraz, etxez aldatzeko unea hurbiltzen ere.

"Gabon Maria. Gela bat nahi nuke lagun batentzat. Gabon lurraldeko hiritarra, ia urtebete darama Donostian eta ez du lan egiteko baimenik. Lagun talde baten artean laguntza ematen diogu. 28 urteko pertsona oso lagunkoia da, eta integratzeko gogoia du. Duela urtebetetik ezagutzen dut eta konfiantzazko pertsona dela ziurta diezazuket. Une honetan ez du lanik egiten lan-baimenik ez duelako. Ordainketa bermatuta egongo litzateke, eta sor daitekeen edozein arazoren ardura hartuko nuke. Kontratua beharko luke, udalean laguntza eskatuko baitu. Gutxienez hilabeteko proba eskertuko nizuke, pisukideek tipo jatorra dela egiazta dezaten baita zuk ere. Ni ere Donostian bizi naiz. Edozein argibide behar izanez gero, deitu hona: xx1xx2xx5 . Agur bero bat "

Mariak ez zion nire eskaerari erantzun; ziurrenik oportretan zegoen. Eduri ere idatzi nion, baina ez zidan jaramonik ere egin, lanean ari zelako ziur aski. Rauli agian ez zitzaion gehiegi gustatu nire idatzia, eta "suediarrarena" egin zuen, nahiz eta Egiakoa izan. Ziur nago Andreak ez zuela mezua irakurri eta, noski, irakurri gabe, nola erantzungo zuen? Peru, seguruenik, beste norbaitekin konprometitua zegoen jada gelaren kontuetarako, eta erantzuten ez zuen lanik hartu ere egin. Eta Gisepe? Italiarra zenez, ez zuen ulertu bidali nion testua.

Mezu hau izan zen Donostiako hainbat tokitan logela bat alokairuan eskaintzen ari ziren 70 pertsona ingururi bidali niena. Lanak ez zuen usteko fruiturik eman eta, beraz, idealista bazara eta horrelako mezu bat bidaltzen badiozu aipatutako plataformari, berehala utziko diozu zarela diozun ameslaria izateari. Horixe da nolabait niri gertatu zitzaidana. Bide batez, oraindik ez dut gela-eskaintza berriei ohartarazten didan alarma desaktibatu eta beraz, ia egunero, nire laguna gogorarazten didan mezuren bat edo beste jasotzen dut, lastategian orratza bilatzen ari ginen garaikoak denak hala denak.

Blanchardi esker, alokairuko gelen mundu zabala ezagutu dut eta esperientziatik hainbat ondorio atera ditut. Eskaintza ugaria da eta batez ere ikasleentzat edo aldi baterako Donostian biziko diren langileentzat pentsatuta dago.

Errentatzaileek eskatzen dituzten hainbat baldintza ezagutu ahal izan ditut: bi hilabeteko fidantza edo hiru hilabetekoa kasu batzuetan, udalaren laguntzarik ez jasotzea, kontraturik ez egitea, paperak behar bezala izatea, nomina bat izatea, DSBEa (RGI) ez kobratzea, animalien maitalea izatea, isila eta errespetuzkoa izatea, ez erretzea...

Logelen prezioak oso garestiak dira, 400-450 eurotik gorakoak, baina bat datoz hiri honetako pisuen salmenta edo alokairu-prezioekin. Hau dena esanda, ikusi ahal izan genituen gela apurrak ez zetozen inola ere bat trukean eskatzen zen prezioarekin.

Bi hilabeteren bueltan, nire eskaera jaso zuen pertsona batek deitu zidan. Gela bat alokatu nahi zuen eta hitzordu bat zehaztu genuen, akordio batekin bukatu zena. Hainbat administrazio-gestio egin ondoren, gure laguna Grosen kokatu zen, 450 euroko kostua zuen gela txiki batean eta horri aurre egiteko, 250 euroko laguntza jasoko zezakeen udaletxearen eskutik. Gizarte-larrialdietarako laguntza (GLL) bat zen, etxebizitza gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonen zuzendua. Kasu honetan ere, gizarte-bazterketako egoerak saihesteko balio duela esango nuke. Laguntza interesgarria zen, baina ez zen nahikoa diru-sarrerarik ez zuen eta, etxebizitzaz gain, edozein gizakiren oinarritzko beharrak zituen pertsona batentzat.

Nire ezjakintasunean, ezin dut ulertu nola administrazio batek gela bat alokatzeko laguntza eskain diezaiokeen norbaiti, beste erakunde batek legez diru-sarrerak lortzea debekatzen dion bitartean, Blancharden kasuan gertatzen zen bezala. Eta diru-sarrera horiek gabe ezin izango zuen gela hori lortu, laguntzak ez baitu logelaren prezioa betetzen. Une hartan ulertu nuen laguntzen jarraitu behar genuela eta berriz ere, lagun eta senide batzuen ekarpenak egoera ekonomikoa arindu zuen hilabete batzuetan.

Baina 2022ko otsailean, gela alokatu zion pertsonak, aldi berean etxebizitzan alokairuan zegoenak, jakinarazi zigun etxe txikiago batera lekualdatuko zela eta, ondorioz, Blanchardek Gros auzoko egonaldia eten behar zuela. Bagenekien, aldez aurreko esperientziatik, gela bat


lortzea ia ezinezkoa izango zela, baina altxorraren bilaketarekin hasi ginen berriro. Etxe berri bat alokatzeko saiakera guztiak alferrik izan ziren. Ziur aski, balizko errentatzaileei bidaltzen nien hasierako mezua ez zen tentagarriegia, baina hasieratik argi utzi nahi izaten nuen egoera, Donostian alokairuan zeuden gela guztietatik barrena erromesaldia saihesteko.

Egoerari irtenbidea aurkitu nahi genion eta ondorioztatu genuen ez genuela oso urrutira joan beharrik; erantzuna etxean bertan geneukan. Udalaren laguntzari uko egin ondoren, duela urte batzuk bulego gisa erabiltzen nuen egurrezko txabola egokitu genuen eta han kokatu zen gure laguna, gela berri bat aurkitu arte.

Hogeita hamar urteko gizon bat etxean sartzea esperientzia interesgarria eta, aldi berean, konplexua izan zen. Zorionez, Irunen hasi zen lanean, gure etxean bizitzen jarri eta egun gutxira eta horrek gauzak asko erraztu zituen zentzu guztietan. Elkarbizitza estuko hilabeteak izan ziren, une onak eta ez hain onak, poza eta tarteka tristura. Elkar hobeto ezagutu genuen eta denbora izan genuen informazioa, pentsamenduak eta iritziak trukatzeko. Gure familiako beste kide bat izan zen ospakizunetan eta ospatzeko ezer ez zegoen uneetan.

17. Kapitula

FRANTZIAN NAGO



Intxaurrondon tren hartu eta Irungo lantokira joaten zen goizeko zortzietan. Lanaldia amaitu ondoren, trenera itzuli eta kilometro pare bat oinez egiten zituen etxera iritsi arte, arratsaldeko zazpiak aldera. Batzuetan, bidean zehar despistatu egiten zen, esaten zigunez, lagun bat bisitatzeko. Hala ere, lagunaren izena aurreko despistearen lagunaren izenarekin inoiz ez zetorren bat. Asteetan bi egunetan Erreterian geratzen zen bere izena ere gogoratzen ez zuen futbol talde bateko infantilak entrenatzen. Pentsatzen dut bere itxura exotikoa eta burua apaintzen zioten txurroek Championseko jokalaririk bikaina zela pentsaraziko zietela hurrei.

Arratsaldean eta afalurretik, mundutarrak eta transzendentalak ziren gaiez hitz egiten genuen: eguneko

albisteak, politika, kirola eta batzuetan, garagardo batzuen laguntzari esker, bizitzaren zentzuaz filosofatzen genuen.

Udara zen. Azken asteetan zerbait prestatzen ari zela sentitu nuen. Bere umore bereizgarria galdua zuen eta normalean baino pentsakorrago eta isilago zegoela iruditu zitzaidan. Halako batean, egunero izaten genuen elkarriketa horietako batean, zerbait aurreratu zidan:

- **Manu, tengo que hacer mi camino.** (Manu, nire bidea egin behar dut.)
- **¿Cómo? ¿Vas a trabajar construyendo carreteras?** (Nola? Errepideak eraikitzen lan egin behar al duzu?) – erantzun nion, unearen seriotasuna hustu nahian edo.

Haren barrea ez zen beste batzuetakoa izan. Benetan ari zen. Bere lagun batek Danimarkan berarekin lan egitea eskaini ziola kontatu zidan. Bere hitzetan, Kopenhagen itsas garraiorako edukiontziak kudeatzen zituen gabondar bat zen. Arraro xamarra zen kontua, baina Blanchard oso konbentzituta mintzo zen.

Bere plana zehaztu zidan: "*Danimarkara joango naiz, herrialde berri bat ezagutuko dut eta nire lagunarekin lan egingo dut. Hilabete batzuk barru Donostiara itzuliko naiz, logela bat alokatu eta bizitza berri bati ekingo diot. Eskaintzen didaten dirua oso ondo dago eta gainera, itzultzean legez lanean has ninteke,*

hirian erroldatuta egondako aldia bi urtetik gorakoa izango litzatekeelako".

Pentsatu nuen agian, bere egoerarekin kezkatuta egongo zela, batez ere etxebizitzari zegokionean. Gurekin bizi zen, beste bat gehiago zen gure etxean, baina ziur aski gure egunerokotasunerako zama handia zela pentsatuko zuen. Aitortzen dut batzuetan bizikidetzak bazituela bere arazoak, eta etxean seme-alaba bat gehiago izatea bezala zela egoera, onerako eta txarrerako. Gainera, Blanchard, dagoeneko, biziraupenekoa ez zen egoera batean eroso zegoela iruditzen zitzaidan eta batzuetan, nire desadostasuna ikustarazten nion portaera jakin batzuegatik, aita batek bere seme-alabetako edozeinekin egingo lukeen bezala. Eta beti arrazoia ematen zidan, baina ez dut sekula jakin konbentzimenduagatik ote zen edo ni lasaitzeagatik.

Nolanahi ere, gure gain hartua genuen konpromisoa eta gure artean jarraituko zuela pentsatzen genuen, modu erregularrean lan egin ahal izan arte. Bestalde, gaztea izanik eta bizitza osoa aurretik izanda, mugitzeko askatasun handiagoa behar zezakeela ere ikusten nuen. Berak esan zuen moduan, bere bidea egin behar zuen eta ekonomikoki autonomia izan, egoera berrira egokitu eta proposatzen zuen guztia lortzen ahalegindu behar zuen. Baina ez genekien iradokitzen ari zen bidea egokia ote zen, ez genuen batere argi ikusten.

- **Pero vamos a ver, ¿cómo piensas pasar a Francia?** (Baina ikus dezagun, nola igaroko zara Frantziara?) – galdetu nion
- **Yo ya sé. Un amigo me ha dicho que puedo pasar por el río** (Badakit. Lagun batek ibaitik pasa naitekeela esan dit) – erantzun zidan konbentziturik, bere proiekturen bat zalantzan jartzen nuen guztietan bezala. Blanchard gizon segurua da, ausarta, baina umiltasunez uste dut ez dituela egoerak behar bezala aztertzen. Behin baino gehiagotan errepikatzen zuen ez zitzaiola gustatzen zailtasunak iragartzea, eta nahiago zuela arazoei parez pare dituzunean aurre egitea. Atentzioa ematen zidan haren bizitza-filosofiak, era batera edo bestera, miretsi egiten nuen. Baina filosofi hark ez zuen zer ikusirik aurreikuspenean, segurtasunean eta etorkizuneko planetan gure mende baldeko pentsamenduarekin.
- **¿Cruzar el Bidasoa? ¿Se te ha ido la pinza? La gente muere intentando atravesar la frontera por el río.** (Bidasoa zeharkatu? Burua galdu al duzu? Jendea hil egiten da muga ibaiaren bitartez zeharkatu nahian.)
- **¿La cual pinza?** (Ze pintza?)– harriturik galdetu zidan.
- **Je te demande si tu es fou** (ea erotuta zauden galdetzen dizut) – frantsesez erantzun nion, gaizki ulerturik egon ez zedin.

- **Tú tranquilo, yo ya sé por dónde pasar el río**
(Zu lasai, nik badakit ibaia nondik igaro) -
Endarlazako baserri batean bizi denaren
ziurtasunez erantzun zidan, egunero Bidasoa
zeharkatzen duenaren horrena, alegia.

Migratzaile batentzat Bidasoa ez da ibaia, saihesten zaila den hesia baizik. Irunera iristen direnek Frantzian, Alemanian edo Europako iparraldeko herrialdeetan dute mira. Muga trenez zeharkatzen saiatzen dira, oinez mendian barrena, autoz legez kanpo antolatutako bidaietan eta batzuek euren bizia arriskuan jartzen dute ibaia igerian zeharkatzen saiatzen direnean.

Bere asmoek urduri utzi ninduten. Interneten kontsultatu nuen gaia, eta jakin nuen 60-70eko hamarkadetan portugaldar eta afrikar migratzaileak ibaiaren ertzerantz hurbiltzen zirela "jauzia" egiteko asmoz. Harri duraz irakurri nuen 1972an, adibidez, 130 pertsona hil zirela bi herrialdeen arteko muga zehazten duen ibaiaren urak zeharkatu nahian. Jakin nuen Jose Saramagok "Emigrazioaren historiak" testuan Bidasoa ibaia zeharkatzeko saiakeran hil ziren migratzaile portugaldarrak aipatzen dituela. Baina, oso urrutira joan gabe, 2021ean zazpi pertsona hil ziren itota. Bere planak ez zuen batere itxura onik.

Frantzia eta Espainiaren arteko muga autobidetik igaro dut azken aldietan, eta normalean Frantziarako bidea kontrolatzen duten jendarmekin topo egin dut. Agerikoa da frantsesek ez dutela nahi penintsula hegoaldetik

datozen migratzaileak bere lurraldera pasatzea. Interes horren erakusgarri garbia izan da Izpegi, Urkiaga eta Larrau mendateak eta Irun zein Hendaia lotzen dituen oinezkoentzako zubia hilabetez itxita egotea. Mugako pasabide horiek 2021eko urtariletik 2023ko urriaren 30era arte egon dira hertsirik, Frantziako gobernuaren arabera, "arrisku terroristagatik".

Duela egun batzuk Irunera joan behar izan nuen familiako kontu batengatik. Autoa FICOBako aparkalekuan utzi nuen, mugatik metro gutxira, eta Blanchardek Frantziara igarotzeko saiakerari buruz kapitulu honetan deskribatzen diren uneak gogoratu nituen. Santiago zubia zeharkatuz Hendaiara paseo bat ematera joatea erabaki nuen. 11:00 ak ziren, eta ez nuen polizia-presentziaren arrastorik ikusi, Frantziako jendarmeriako garita bat izan ezik. Bidasoa ibaia gainditzen duen zubia arazo handirik gabe zeharkatu nuen. Hendaiara paseo txiki bat eman ondoren, ezbeharrik gabe itzuli nintzen etorritako bidetik. Baina, noski, ni zuria naiz, eta horrek asko errazten ditu gauzak muga zeharkatzen duen errepide horretan.

Nazioarteko nire ibilaldi laburraren lasaitasuna ez zetorren bat migratzaileek Frantziarako bidean aurkitzen dituzten zailtasunekin, haien bizitza arriskuan jartzerainokoak, hain zuzen. Ez nuen ulertzen, eta nire kontrolpetik ihes egiten zuen zerbait zegoelakoan nengoen. Polizia ez da ikusten, baina egon badago, hor nonbait. Seguruenik zaintza-kamerek zubia ikuskatuko dute. Oso posible da tren eta autobus-geltokietan poliziaren

presentzia egotea, hau da, polizia migratzaile gehien dagoen lekuetan egotea agerian edo ezkutuan bada ere.

- **Sabes que no te puedo ayudar, no quiero meterme en un lío. Pero creo que cruzar el río no es una buena idea** (Badakizu ezin zaitudala lagundu, ez dut arazo larri batean sartu nahi. Baina uste dut ibaia zeharkatzea ez dela ideia ona) – esan nion, aita babeslearen paperean.
- **Ya sé. Tu tranquilo. Yo pasaré.** (Nik badakit, Lasai egon. Ni pasako naiz.)

Abuztua zen. Hilabete hartako 31n abiatuko zela esan zidan, eta bere lagunak egun hori gurutzatzeko egokia zela iradoki ziola ziurtatu zidan. Pentsatu nuen, oporretako itzulera-operazioarekin batera, agian polizia lanpetuago egongo zela autobidearen mugan. Hurrengo egunetan ez zuen gaiari buruz hitz egin eta nik ere jakin behar ez nuen konturik ez nuen entzun nahi.

Bere laguna nor zen ez nuen jakin nahi eta, bitxia bada ere, lasaiago sentitzen nintzen bidaiaren xehetasunak ezagutu gabe. Baina argi zegoen zer bait prestatzen ari zela eta ez gintuen tartean sartu nahi. Hala jakinarazi zidan behin baino gehiagotan.

Egun batean, Beratik Sarara doan errepideari buruzko interesa erakutsi zuen. Ibardingo mendatea eta Lizuniagako mendatea aipatu nizekion. Ondo ezagutzen nituen errepide haiek, paraje eder haietatik bizikletan ibiltzen nintzen garaietatik.

- **¿Y por qué me preguntas esto?** (Eta zergatik galdetzen didazu hau?) – nire susmoak berresteko galdetu nion.
- **Voy a pasar con la bicicleta de un amigo.** (Lagun baten bizikletarekin igarotzera noa.)

Blanchardekin pare bat bizikleta irteera egin nituen. Leku berriak ezagutzea gustatzen zitzaion, batez ere paraje basotsuak eta herri txikiak. Bere amona bizi zen herria gogorarazten zioten. Nahiz eta Libreville hiriburuan jaio, sarritan joaten zen basoaren erdian bizi zen familia bisitatzen. Gogo biziz kontatzen zituen oihanean egindako sartu-irtenak eta jendearen bizimodu xumea. Argirik gabe bizi ziren, zibilizaziotik urrun samar. Txundituta uzten gintuen haren kontakizunek: suge izugarriak, tximinoen oihuak, oihan amaigabeak, ibai sakonak, antilope ehiza... izugarri gustatzen zitzaidan bere abenturak entzutea, bat-batean sortzen ziren solasaldietan.

Eta bizikletarekin jarraituz, behin Goizuetarako bidea hartu genuen. Ibilbidea azaldu nahi nion, ezagutzen nituen baserrien izenak aipatu, igoera hura Aranora zeraman bidegurutze batean amaitzen zela esan nahi nion eta Aranon nire amona jaio zela aipatzeko asmoa nuen (nik ere amona izan bainuen). Baina ez zidan aukera handirik eman. Irten bezain laster, oso erraz aurreratu ninduen nahiz eta utzi nion bizikleta oso astuna izan. Nahita utzi nion bizikleta hura, jakinda errepideko bizikleta arin bat neramanez, nik baino indar handiagoa egin beharko zuela.

Gaztea zen eta gaitasun fisiko ikaragarriak zituen. Bazekien, beraz, muga zeharkatzeko bere plan hartan ez zuela inolako arazorik izango Lizuniaga mendatea gainditzeko, eta, nahi izanez gero, zailtasunik gabe iritsi zitekeela Baionara, Miarritzera edo Parisera beharrezkoa balitz.

Lizuniagako mendatea bizikletaz behin baino gehiagotan igaro izan dut eta han, Sarako jaitsiera hasten denean, ezkerretara ikusten den etxea gogoratu dut. Duela urte batzuk, guardia zibila egoten zen bertan, baina orain itxita dago eta ez da inolako zaintzarik ikusten. Baina, jakina, dena ez da dirudiena. Seguru aski beste zaintza mota bat izango da, ni bezalako batek sumatu ezin duena. Mugako pasabide hori egokia izan da historiako une desberdinetan salgaiak eta pertsonak legez kanpo pasatzeko; desnibela ez da gehiegizkoa eta inguruko mendateak baino errazagoa da (Ibardin eta Lizarrieta).

Baina, edonola, arriskutsua zan bere plana. Harrapatzen bazuten jatorrizko herrialdera deportatu ahal izango zuten. Eta deportatzen ez bazuten, agian galdu egingo zuen gure artean egoteko eskubidea eta, Donostian egindako saiakera guztiak pikutara joan zitezkeen, agian ezingo zukeen lan-baimenik lortu, edo agian isuna jarriko zioten... edo zer dakit nik.

Ez nuen ideiarik ere mugako atxiloketa batek izan zitzakeen ondorioez, baina beldur nintzen ordura arte egindako lanek eta ahaleginek ez ote zuten huts egingo buruan zebilkien asmoarekin. Nire lagunaren ideia berria

nahiko burugabea iruditu zitzaidan, baina ziurtasun handiz transmititu zuen eta ez nion nire hitzaldi ezkorrekin eguna hondatu nahi.

Elkarrizketa hura izan eta egun batzuetara, abuztuaren 20an, lasai gosaltzen ari nintzen prentsa interneten irakurri. Bat-batean, ahoan neukan oliotan bustitako ogi zatia eztarrian trabatu egin zitzaidan, epiglotisaren parean edo. Eztulka aritu ondoren, zur eta lur utzi ninduen berri hura bigarren aldiz irakurri nuen : "Beran erakunde bat desegin dute, Frantziara migratzaileak Lizuniaga gainetik pasatzean irabaziak lortzen zituen".

Duintasun apur bat berreskuratu ondoren berria irakurtzen jarraitu nuen. Zirudienez, desartikulatutako taldeak muga zeharkatzeko asmoa zuten migratzaileak erakartzen zituen eta ezkutuan Frantzian sartzen zituen. Irabazizko negozioa zirudien; Biriaturako muga-pasabidea oso zainduta zegoen eta Bidasoan igerian ibiltzea arriskutsua zen; beraz, migratzaileek beste aukera batzuk bilatu behar zituzten mugaren beste aldera pasatzeko.

- **Blanchard. Olvídate de la bicicleta, de Lizuniaga y de su puta madre** (Blanchard. Ahaztu bizikletaz, Lizuniagaz eta beste guztiaz) - esan nion berriarengatik oraindik txundituta. Zer irakurri nuen azaldu nion, baina bazirudien kontatzen niona ez zihoala berarekin. Bere lasaitasunak aztoratu ninduen. Agian beste plan bat

zuen eta agian bizikletarena despistatzeko esan zidan.

- **Tranquilo primo, yo ya sé cómo pasar.** (Lasai “primo”, nik badakit nola igaro.)

Haren jarrerak eta haren erantzunaren segurtasunak nire kezka arindu zuen, baina ez gehiegi. Zerbait prestatuta zuela imajinatzen nuen, baina ez zuen partekatu nahi, agian gu ez kezkatzeko edo guri arazoak ez sorrarazteko.

Abuztuaren 23a zen, asteartea, eta goiz hartan ez ginen elkartu. Pentsatu nuen egunero bezala, gure etxetik Irunera eramango zuen trenerantz aterako zela. Goizean zehar, ia egunero bidaltzen zizkidan argazkiak eta mezuak, baina egun hartan telefonoko abisua jaso nuenean sentsazio arraro bat izan nuen. 12:15ean, audio-mezu labur bat iritsi zen nire mugikorrera:

- **Manu, estoy en Francia.** (Manu, Frantzian nago.)

AURKIBIDEA

1. Karretila	9
2. Jauzia	13
3. Infernua	21
4. Konfiantza	27
5. Gabon	31
6. Opari-txartela	37
7. Familia eta lagunak	43
8. Zoaz zu niri barregura sartzen zait eta	51
9. Zergatia	57
10. Artista	63
11. Futbola	71
12. Pasaportea	77
13. 22-03	91
14. Ikasten edo lanean	97
15. <i>Iboga</i>	109
16. Pisu bila	115
17. Frantzian nago	123